

Durangoko etxe berrietan genero eta ingurumen ikuspegia aplikatuko dute



Durango | Udalean aho batez onartutako ordenantza berritzaile bati esker, Durangon aurrerantzean eraikitzen diren etxebizitzetan genero eta ingurumen ikuspegia txertatuko dute. Emakumeen ikuspegitik segurtasun irizpideak zainduko dituzte, eta ingurumen ikuspegitik energia aurrezteko neurriak aplikatu. • 4


Atxondoko eskolan sukaldeak ipintzeko pausoa eman dute



Atxondo | Eusko Jaurlaritzak dauka eskolako jantokiagaz zer egin erabakitzeko ahalmena, baina udalak gurasoen eta Berton Bertokoaren eskaria errealitatera eramateko konpromisoa agertu du. Sukaldeak ipintzeko pausoa eman dute, eta udalak 60.000 euro ipiniko ditu proiekturako. • 8

Ezkutuko altxorra

GEMA espeleologia taldeak 400 kobazulo dauzka katalogatuta Anboto mendikatean. Kanpotik begiratuta, imajinatzeko zailak diren tamaina, luzera eta sakonerakoak dira horietako batzuk. Ikerkuntzan dabilta espeleologoak, eta azken urteetan ere aurkikuntza garrantzitsuak egin dituzte. • 2-3



JOSU GRANJA

5 udal larrialdietako pediatria zerbitzuaren alde

Durangaldea | 24 orduko pediatria zerbitzua eskatzen duen plataformak mozioak aurkeztu ditu udaletan, eta dagoeneko bost udal alde agertu dira. Bestalde, Durangoko osasun zentroan mediku eta erizain gehiago ipintzea eskatu du Herriaren Eskubideak. • 8



Martxoaren 1etik 31ra

ESKAINITZA IKARAGARRIAK

6.400 € -tik aurrera zure neurriko finantziazioarekin

SCHMIDT
Zu ez zarela besteak bezalakoa

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

> Batu zaitez geurera hemen





GEMA taldeko kide batzuk, erreskate simulazio batean.

400 kobazuloko altxorra, ezkututik argitara bidean

Urkiolako parke naturalaren barrunbeetan, 400 kobazulo daude katalogatuta, Abadiñoako GEMA taldeari esker

DURANGALDEA • MARKEL ONANDIA

Anboto mendikateko haitzen jatorria itsas hondoko arrezifetan dagoela uste dute adituek. Itsas maila bajatu zenean, arrezife haiek kareharri bihurtzen joan ziren, sedimentazioaren eta fosilizazioaren eraginez. Gero, lurraren tolesturek eman zioten forma mendikateari. Orain 50 milioi urte inguru gertatu zen hori, eta geroztik egindako euriak hainbat zulo eragin ditu, tantaz tanta harria higatuta. Durangaldean hain maitatua dugun paisaia horren baitan, ezkutuan, altxor liluragarri bat sortu da horrela. 1987tik hona bitartean, 400 kobazulo eta leize katalogatu ditu Abadiñoako GEMA espeleologia taldeak, Urkiolako parke naturaleko barrunbe horiek ikertzeko eta zaintzeko ardura daukan taldeak.

GEMAKoek koba berriak aurkitu dituzte urte hauetan, eta lehendik ezagunak diren hainbatetan sakondu dute. Aurkikuntza aipagarrien artean, batetik, Anbotoko Mariren koban 185

metroko putzu bat topatu zuten, 2007an. Bestetik, Eskuagatx mendian Deabruatx kobazuloa topatu zuten, 2010ean, eta potentzial espeleologiko handikoa dela uste dute. 6 kilometro luze da eta 153 metroko desnibela dauka.

Zaintza eta dibulgazioa

Ikerketaz gainera, beste hainbat funtzio betetzen ditu GEMA taldeak. Erreskateetan laguntzen dute eta kobazuloetan garbiketak egiten dituzte. Esaterako, urrian 400 kilo zabor atera zituzten Eskuagatxeko leize batetik.

***Ikerketaz gainera,
beste hainbat funtzio
betetzen ditu
GEMA taldeak***

***Urrian 400 kilo
zabor atera zituzten
Eskuagatxeko
leize batetik***

Euren lana argitara ateratzeari garrantzia ematen diote, dibulgazioa sustatzeko, eta erreportaje honetarako lagatako argazkiak dira horren erakusle. Ezkutuko altxor baten zaindari dira.



ANBOTOKO MARI

Zentzu mitologikoaz aparte, mendikateko putzurik sakonena Anboton dago, 185 metrokoa. Bestalde, kobarik sakonena Mugarran dago, Arriluzea deiturikoa (270 metro sakon da).



DEABRUATX

6 kilometroko distantziagaz, parke naturaleko kobazulorik luzeena da Deabruatxekoa, Eskuagatx mendian. Lur azpiko erreka bi eta gela handi bat topatu dituzte GEMAKoek, eta potentzial handiko lekua dela diote.



ERREKAKOBEA

Gizakia txikitasunera daraman gela bat dago Untzillatxeko Errekakobean, Bizkaiko handienetakoa. 100 metroko luzera, 30eko zabalera eta 60ko altuera dauka. Antonio Ferrer espeleologo ait-zindariak topatu zuen, 1930ean. Argazkia: Josu Granja

“Urkiolan gauza handiren bat topatzeko esperantzarik handiena Deabruatxen dugu”

Espeleologia pasioz bizi dute, bide berriak zabaltzeko eta koba berriak topatzeko asmoz



DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA
Traña-Matienan eskolaz kanpoko jarduera lez hasi ziren espeleologia lantzen 1987an, eta horren ondorioz jaio zen GEMA taldea. Gaurko belaunaldiaren parte dira Eneko Garitaonandia durangarra eta An-doni Arbulu atxondarra. Hogei kide inguru daude federatuta, eta zortzi bat era aktiboan dabilta.

Zer du espeleologiak zuen grina erakartzeko?

E.G.: Esploratzea eta gauza berriak topatzea da gehien motibatzen zaituena. Anbotoko Mariren kobak beti eduki du xarma berezi bat, eta han 185 metroko putzu bat topatzea zerbait berezia izan zen niretzat.

A.A.: Deabruatxeko koba, adibidez,

2010ean topatu genuen eta urte bi buru-belarri ibili ginen bertan. Oraindik ere han segitzen dugu ikerketan. 6 kilometroko luzera du; hori oso zaila da hemen aurkitzea.

Eskuagatxen dago koba hori. Zuen argitalpenetan esan izan dizue potentzial handiko koba dela.

E.G.: Bai. Urkiolan gauza handiren bat topatzeko esperantzarik han-

diena Deabruatxen dugu. Kobazuloari beste sarreraren bat topatu gura diogu, ea beste koba batzuekin loturak dituen ezagutu... Deabruatxekoa salbuespen bat da; gure belaunaldirako ez da normala koba oso bat topatzea. Aurreko belaunaldien lanari jarraipena ematea izaten da ohikoa.

A.A.: Bertako mendien ezaugarrietatik, normalean bertikaltasuna topatzen dugu, horizontaltasuna barik. Eskuagatx mendigune zabal bat da, eta goian landaredia dauka. Beste mendietan, ura sartu egiten da eta aukera gehiago egoten da ka-reharria disolbatzeko. Eskuagatxen tarte txiki batean gaude lanean oraindik. Hiru pisutan zehar eta hainbat sare eta galeriatan banatzen da.

Ikerketaz aparte, erreskateetan parte hartzen duzue.

E.G.: Oso istripu gutxi egoten dira kobetan, baina gertatzen denean jende eta baliabide asko behar izaten dira pertsona bat ateratzeko. Horretarako, espeleologoak gara erreskatatzailerik onenak. Hainbat taldetako boluntarioek osatzen dugun Euskal Espeleo Laguntza taldean, Eusko Jaurlaritzagaz hitzarmen bat daukagu, behar izanez gero laguntzeko.

Garbiketak ere egiten dituzue kobazuloetan. Eskuagatxen, 400 kilo hondakin atera zenituzten urrian.

E.G.: Garbiketak talde moduan zein Euskal Espeleologo Elkargoagaz egin izan ditugu. 2013an, esaterako, Larranon koba bat garbitu genuen, Urkiolako Parke Naturalekoekin akordio batera ailegatuta.

A.A.: Azken urteetan elkargokoe-

kin ibili izan gara. Urtean bi edo hiru kobazulo garbitzen ditugu. Eskuagatxekoa izan da azkena.

Esplorazioen datuak eta topografiak katalogatzen dituzue.

E.G.: Kobazuloen datu base edo katalogo bat daukagu. Elkargotik, Euskal Herriko katalogo bat *on line* ipintzea da helburua.

A.A.: Elkargoak Karaitza aldizkaria dauka eta bertan publikatu izan ditugu datuak, topografiak...

E.G.: Azken batean, ingurua babes-teko modurik onena ezagutzera ematea da, jendeak jakin dezan lurpean zelako altxorra dagoen. Horixe da gure helburua.

A.A.: Guk edaten dugun ura haitzetatik dator, eta ez badugu errespetatzen...

**“
Babesteko modurik onena ezagutzera ematea da, jendeak jakin dezan lurpean zer altxor dagoen”**

ENEKO GARITAONANDIA

Zein sentsazio izaten da horrelako kobazulo baten barruan egotean?

E.G.: Mundutik aparte zaudela, isolatuta. Hor ez dago ez mugikorrik, ez GPSrik, ez ezer. Inguru hori orain 1.000 edo 2.000 urte zegoen moduan dago; ez da eraldatu kanpoaldeagaz alderatzen baduzu.

A.A.: Urteekin egokitu egiten zara, eta, nik behintzat, koban topatzen dudana lasaitasuna ez dut beste inon topatzen.



Margoen eta hezurren aurkikuntzagatik balio handikoa da Askondo, Mañarian. GEMAK ikerlariei lagundu izan die.



Silibranka kobazuloa, Mañariko Urkioleta mendigunean, estalaktitaz eta estalagmitaz beterik.



Abaro-Jentilzubi sistema, Diman. 1994an, GEMAK Abaro leizea eta Jentilzubi koba batzea lortu zuen.



GEMA taldeko hainbat kide, artxiboko irudi batean.



Durangoko Familiak elkarteak 2017tik dabil lanean.

Gazteleku baten beharra plazaratu du Durangoko Familiak elkarteak

Gaztelekua nerabeak heldutasunera igarotzen laguntzeko "baliabide garrantzitsua" dela diote elkarteek; gazteen beharrianak ezagutzeko prozesu bat hastea onartu du udalak

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Gazteleku bat beharrezkoa dela uste du Saputxiki Durangoko Familiak elkarteak, eta prozesu parte-hartzaile bat martxan jartzea proposatu zuen eguazteneko bilkuran. "Gaztelekuak baliabide garrantzitsu bat dira nerabeak heldutasunera igarotzen laguntzeko", esan zuten mozioan. Gazteleku hori espazio ludiko bat izango litzateke, sormena lantzeko, euskara eta kultura sustatzeko, eta gazteei orientazioa eta laguntza emateko.

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak mozioa babestu zuten, baina EAJk eta PSE-EEk, ez (PP ez zen egon). Pilar Riosek (PSE-EE) esan zuen "helburuak zehatzegi" agertzen zirela mozioan; ordezko bat

aurkeztu zuten gobernutik, eta hark egin zuen aurrera, alkatearen kalitatezko botoak berdinketa hautsita. Goiztidi Diazek (EAJ) esan zuen prozesu bat hasi gura dutela, gazteen beharrianak ezagutzeko. Gazteek, gurasoek, aisialdi elkarteek eta ikastetxeek parte hartu ahalko lukete. Aparte, familien elkarteagaz elkarrizketa fase bat hastea onartu zuten. Diazek eta Riosek nabarmendu zuten udalak hainbat ekintza egin dituela: Andraguneko ikastaroak, Domekaero, tailerrak, antzerki taldeekin hitzarmenak...

Iker Urkizak (EH Bildu) adierazi zuen "herritarrentzako espazioak" behar direla Durangon. Horren harira, hutsik dauden eraikin publikoak erabiltzea proposatu

zuen. Adibidez, Correosen eraikin zaharrea ludoteka eta gaztelekua sortzeko ideia eman zuen. Julian Riosek (Herriaren Eskubidea) inguruko gaztelekuak ezagutzen egon direla azaldu zuen, eta euren proposamena zerbitzuak San Agustino ospitale zaharrean jartzea da, zentro soziokultural bihurtuta.

Ludotekarako lokala

Durangoko Familiak taldeak ludoteka bat ere badauka eskatuta. Udalak apirilera arte lokal bat alokatzea proposatu zion otsailean, eta gestioa familiek eramatea. Baina elkarteak ez du begi onez ikusi. "Proiektu laburra" dela diote, eta "diru xahutze" horrek ez duela arazoa konponduko.

Durangoko EAJk inkesta bat banatuko du, herritarren iritzia eta ekarpenak jasotzeko

DURANGO • M.O.

EAJk inkesta bat banatuko du datozen egunotan, herritarren iritzia eta ekarpenak jasotzeko. Galdegia posta arruntez zein posta

elektronikoz bidali ahalko dute herritarrek. Mireia Elkoroiribe alkategaiak iritzi guztiei erantzuteko konpromisoa hartu du, jeltzaleek azaldu dutenez.

2017an, Durango Helburu ize-neko prozesua ipini zuen martxan EAJk, eta herriko 120 pertsonak parte hartu zuten bertan. Hortik, 120 ideia atera zituzten. Bigarren fase batean, herriko 50 elkartegaz hartueman izan du Elkoroiribek. Orain, herritar guztiei emango die iritzia emateko aukera.

Etxebizitzetan genero ikuspegia txertatuko dute

Segurtasuna bermatzea eta etxebizitzak beharren arabera malgutasunez eraiki ahal izatea dira udalaren helburuak

DURANGO • M.O.

Durangon aurrerantzean eraikitzeko diren etxeetan genero eta ingurumen ikuspegiak txertatuko dituzte. Martitzenean aurkeztu zuen ordenantza gobernu taldeak, eta aho batez onartu zuten alderdiek. Herriko zenbait emakumek parte hartu dute genero ikuspegiaren aurrelanketan.

Genero ikuspegiagaz, segurtasuna bermatzea eta etxeak beharren arabera eraikitzea izango da helburua. Esaterako, etxe atariak kaleko espazio nagusira begira egingo dira soilik, argiztapen ego-kiagaz. Garajeetan ere argiteria bermatuko dute, kanpoan zein barruan, eta ispiak ipiniko dituzte.

Eraikuntza malgutasunez landuko da, bizitzaren etapa anitzak

eta familia unitate ugariak kontuan hartuta. Adibidez, lan egiteko espazioak ere aintzat hartuko dira. Gainera, blokeetan espazio komunitarioak aurreikusiko dira; haurren kotxeak zein motordun aulkiak uzteko, esaterako.

Espazio komunitarioak aurreikusiko dituzte, haurren kotxeak zein motordun aulkiak uzteko

Ingurumen arloan, hainbat neurri zainduko dituzte energia eta ura aurrezteko. Argiztapen naturala aprobetxatu, eta eguzki plaka termikoak sustatuko dituzte.

Estazioko obrak geratzeko eskatu du berriro Erabakik

Urtarrilean ez bezala, kasu honetan ez da aurrera atera Erabaki plataformak aurkeztutako proposamena

DURANGO • M.O.

Urtarrilean, kontsulta egin arte estazioko obrak etetea onartu zuen udalbatzak. Baina udalak ez du praktikara eraman eta proiektuaren behin betiko onarpenera

Proiektuak 2006tik hona aldaketak izan dituenek, geratzeko beharra erreklamatu zuen Erabakik

ratzeko beharra dagoela erreklamatu zuen. EH Bildu eta Herriaren Eskubidea alde agertu ziren, baina EAJ eta PSE-EE, ez. Urtarrilean obrak etetearen alde bozkatu zuen Mauricio Garcia sozialistak, baina martitzenean, ez.

"Segurtasun juridikoa" aipatu zuen Aitziber Irigorasek mozioa ez babesteko. Ion Andoni del Amok (EH Bildu) "segurtasun demokratikoa" ere eskatu zuen, galdeketa egingo denerako posible delako proiektua martxan egotea. Jorge Varela (Herriaren Eskubidea) iritzi berekoa da.

Bestalde, galdeketa ez du data-rik oraindik. Joan zen asteen, Basauriko aholkulari juridikoa egon zen batzorde berezian, han egin duten galdeketa informatzeko.

aldizkari ofizialean argitaratu duela jakin da. Horren aurrean, Erabaki plataformak beste mozio bat aurkeztu zuen martitzenean, Lurzoru Legearen 85. artikulua aldarrikatuz; proiektuak 2006tik hona aldaketak izan dituenek, ge-

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko martxoaren 15a
17. urtea - 755. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

2015 **Bikam**
Bikam
Bikam

PEFC
PEFC
PEFC

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Julian Rios Santiago
Herriaren Eskubideko
alkategaia.
Durango | 1973

arnasa hartzea gehiago kostatzen zitzaiola... Arazo bat agerian geratu da eta udalak ukatu egin izan du. Sailburuordea ere etorri zen, ia dena ondo zegoela esatera. Gure iritzian, ikerketa zehatz bat egin behar da, eta gero erantzukizunak ikusi. Osasuna gakoa da, eta zer arnasten dugun jakiteko eskubidea daukagu.

“

Auzo kontseilu bat sortzeko proposamena daukagu, auzokideek ahotsa eta botoa eduki dezaten

■

“Bestelako herri eredu bat behar dugu, jendeak espazioa berreskuratuko duena”

Herritarrek udaleko gaietan erabaki ahal izatea gura du Julian Riosek, eguneroko bizi-kalitatea hobetzen saiatzeko

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Gizarte hezitzailea da lanbidez, eta mugimendu sozialetatik udalerako jauzia eman zuen 2015ean. Maia-tzeko hauteskundeetan alkategai izango da berriro.

Asteon aurkeztu duzue zerrenda. Pozik zaudete osaketagaz?

Oso pozik eta ilusionatuta gaude. Kalean hasi ginen, astiro-astiro, eta kaleko jendeagaz lanean jarraitzen dugu. Hazten goaz, eta ikasten. Esperientziadun zerrendaburua izango duen hautagaitza bakarra gara. Jendeak berriro ere aurkeztu nadin eskatu du. Lan oso militantea egin dugu, laguntza eskatu diguten guztien ondoan egon gara. Politika egiteko era berritzaile bat garatu dugula uste dut, zabalik egon dena, bai kalean, bai sare sozialetan. Duela lau urtekoetz gainera, orain mugimendu sozialen beste olatu bat ere badator. Zerrenda ikusteak animo gorakada dakar.

Zelan baloratzen duzu amaitzeaz dagoen legealdia?

Ezer egin gura izan ez duen eta oposizioari ezer egiten utzi ez dion udala izan dugu. Adibidez, auzo-taxiaren eta pertsona hipersentikorren aldeko mozioak onartu ziren, baina udal gobernuak ez ditu praktikara eramane. Bunkerraren dinamikagaz jarraitu dute. Beste alderdietan egitura bertikala dute, eta, gure kasuan, durangarrek era-

bakitzen dute. Aurrerantzean ere independentzia hori edukiko dugu. **Estaziorako planaren gaian, zer bide jorratu behar da?**

Udal gobernuak parte-hartzerako bide guztiak blokeatu ditu, eta galdeketa prozesua luzatzen dabil. Guk gobernatuz gero, herritarrek erabakitzea ahalbidetuko genuke, kontsulta bidez. Ez bakarrik gai horretan; erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dugun Euskal Herri honetan, gakoa da zelako herria gura duzun erabakitzea, baita ekonomian, gizartearen, kulturaren... ere. Gure ustez, birika berde bat izan behar du gune horrek. Paseatzeko, arnasa hartzeko eta lasai egoteko espazio bat behar dugu.

“

"Politika egiteko era berritzaile bat garatu dugula uste dut, zabalik egon dena, bai kalean, bai sare sozialetan"

■

Azkenaldian hainbat plataforma sortu dira herrian, eta zenbait kide batu dira zuen zerrendara.

Udalak jendeari entzun ez izana islatzen du plataformen sorrerak. Ezin da politika egin jendeari entzun barik. Gure ideiak kalean jasotakoak dira, eskariaren eta udalaren arteko transmisio bat gara.

Ildo horretan jarraitzeko modu bat da plataformetako jende bat gugaz egotea, era independentean. Auzo kontseilu bat sortzeko proposamena daukagu, auzokideek ahotsa eta botoa eduki ditzaten.

Auzo kontseiluarenaz gainera, zer beste proposamen duzue?

Bestelako herri eredu bat behar dugu, jendeak espazioa berreskuratuko duena. Gune berde eta oinezkoen gune gehiago behar ditugu. Horrek komertzio gehiago ez zarratzen lagunduko du. Bizi-kalitatea hobetuko duen herria, atsegina izango dena, batez ere emakumeekin, umeeekin eta mugikortasun

murritzua dutenekin. San Agustineko ospitalea berreskuratu eta gune soziokultural bihurtu gura dugu. Ludoteka, gaztelekua, hiru-garren adinekoentzako zerbitzuak eta elkarteentzako lekua izango lituzke. Bestalde, euskara eta feminismoa zeharlerro dira guretzat. Udalean, soldaten kode etikoa eskatzen dugu; alkateak 75.000 euro kobratzea lekuz kanpo dago.

Airearen kutsaduraz informatu izan duzue. Herritarren kezka nagusia da.

2017an hasi ginen gaiari zabalpena ematen, mozioen eta datuen bidez. Okerrago usaintzen zuela esanez ikusten genuen jendea,



Martitzenean egin zuten hautagaitzaren aurkezpena. Neskutz Rodríguez batzarkidea da zerrendako bigarrena.

Kaleak garbitzen dituen ibilgailuak zaborra bide bazterrera botatzen duela gezurtatu du gobernu taldeak

EH Bilduk salatu du kaleak garbitzeko makinak eskolara doan errepidearen bazterrera botatzen duela zaborra

IURRETA • AITZIBER BASAURI
Iurretan kaleak garbitzen dituen ibilgailuak zaborra bide bazterrera botatzen duela salatu du, asteon, EH Bilduk. Eskolara doan errepidearen bazterrera botatzen dela zaborra jakinarazi dio herritar batek koalizioari. Udal gobernuak gezurtatu egin ditu gertaera horiek. Argitu dutenez, "kaleak garbitzeko makina garbitu egiten da leku horretan, uraz bakarrik, eta zaborra dagokion edukiontzian deskargatu osten". Gaineratu dutenez, "ez da



"Kontrastatu bako akusazio faltsurik ez egitea" eskatu dio gobernu taldeak EH Bilduri

bidezkoa EH Bilduk udalaren eta bere garbiketa zerbitzuaren aurkako salaketa larriak egitea, kontrastatu barik, langileen zintzotasuna eta lana zalantzan jarritz".



Azpikontratutako enpresaren jarraipena hobetzeko eskatu du EH Bilduk.

Neurriak hartzeko eskaria
EH Bilduren ustez, "gertaera larria" da. "Batetik, ez delako zaborraren tratamendu egokia egiten, eta, bestetik, hondakinen birziklapenari eta tratamenduari buruz gizartea aktibatzen saiatzen ari garen honetan, udalaren eskutik praktika txar bat suposatzen duelako". Ildo

EH Bildu: "Gertaerak udal gobernuaren jarraipen eza eta arduragabekeria islatzen ditu"

horretatik, makinak botatakoa garbitzea eta neurriak hartzea eskatu dio gobernu taldeari. "Ger-

taerak udal gobernuaren jarraipen eza eta arduragabekeria islatzen ditu. Beraz, azpikontratutako enpresaren jarraipena hobetzeko, neurriak hartzea eskatzen diogu udalari".

Udal gobernuak, bere aldetik, "kritikan zorrotasun eta egiazkotasun handiagoa" izatea eskatu dio

EH Bilduri, eta "behar bezala kontrastatu bako akusazio faltsurik ez egitea". Jeltzaleen ustez, "Erabateko arduragabekeria" da hori. Udaleko garbitasunaren mantenuan egutero lan egiten dutela nabarmendu dute, "araudi guztiak zehatz-mehatz betez eta zerbitzuaren kontrola behar bezala mantenduz".

Abadiñoko BI-722 errepidea itxita ordubetez, sute baten ondorioz



ABADIÑO • ARITZ MALDONADO
Joan zen zapatuan, BI-722 errepidea itxita egon zen ordubetez, inguruetan zegoen txabola multzo batean sutea piztu osten. 21:00 inguruan piztu zen sutea, Eroski ondoko zubipean eta suhiltzaileek lan egin zuten bitartean Ertzaintzak bidea itxi zuen. Ingurua kiskalita geratu zen eta zubian ere eragin zuen suteak, Jose Luis Navarro alkatearen esanetan. "Joan-etorrian dabilen talde bat bizi da txabola horietan. Hainbat bider kanporatu dituzte, baina bueltan datoz berriro", azaldu du alkateak. Hala ere, pozik agertu da, kalte materialak soilik eragin dituelako suteak. "Ez da ez zauriturik ez hildakorik egon, eta hori berri ona da", gaineratu du. Bestalde, txabola gunearikiko neurririk egongo den ez dakiela adierazi du Navarrok. "URA eta Ingurumen Saila dira arduradunak, zubian ere eragin duelako suteak".

Oinezkoei lehentasuna emanez, Zornotzako Udalak Legarrebi auzoa urbanizatuko du

Obrak aurtengo hirugarren hiruhilekoan hasiko dira eta udalak 573.000 euroko inbertsioa egingo du auzoan



Legarrebi auzoa zelan geratuko den erakusten duen infografia.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO
Zornotzako Udalak Legarrebi auzoa berrituko du. Lanak honako eremu honetan egingo dituzte: San Juan kalean eta San Juan eta An-

Espaloiak zabaldu eta zuhaitzak jarriko dituzte, oinezkoei lehentasuna emateko helburuz

drandi kaleak batzen diren lekuan. Besteak beste, Andrandi kaleko etxebizitzetaraino heltzen den kalea urbanizatu gura dute.

Aurtengo hirugarren hiruhilekoan hasiko diuzte lanak, eta lau hilabete beharko dituzte amai-

tzeko. Herritarrek etxebizitzetara "errazago" joatea lortu gura dute, ohar batean informatu dutenez.

Horrez gainera, oinezkoei lehentasuna eman gura diete. Horretarako, espaloiak zabaldu eta zuhaitzak jarriko dituzte lehen ez zeuden lekuan. Gainera, inguruko argiztapena hobetuko dute. Amaitzeko, farola berriak jarri eta inguruko azpiegitura sarea hobetuko dute. Proiektuak 573.000 euroko aurrekontua izango du.

Farola berriak jarriko dituzte eta inguruko azpiegitura sarea hobetuko dute

Garaitarrek bost proposamen aurkeztu dituzte udal aurrekonturako

GARAI • M.O.
Udalak aurrekontu parte-hartzaileak landu ditu aurtengo lehengoan, herritarren iritzien arabera diru partida bat inbertitzeko. Hain zuzen ere, udal aurrekontuko 40.000 eurogaz zer egin erabaki ahal dute garaitarrek. Urtarril amaieran, batzar zabala egin zuten eta ideia batzuk plazaratu zituzten: euskararen ondarea berreskuratzea, argiteria hobetzea... Gero, herritarrek otsailaren 21era arteko epea zuten proposamenak aurkeztu ahal izateko. Bada, bost ideia izan dira era ofizialean aurkeztutakoak.

Garaiko Udalak lehengoan sortu du horrelako partida bat; iaz ere jaso zituzten herritarren ideiak, baina diru zehatz bat gorde barik.

Bilboko zubietan batuko dira, gaixorik dauden presoen alde

'Ni zu bi' ekimena sortu dute Bizkaian; bihar elkarretaratzeak eta martxak egingo dituzte hiriburuan

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Gaixotasun larriak dituzten preso-
soen eskubideen alde *Ni zu bi* herri
ekimena sortu dute Bizkaian.
Bihar, 12:00etan, Bilboko zazpi
zubitan elkarretaratzeak egingo
dituzte, eta, gero, martxa bi irten-

go dira Arriagaraino. Prentsaurre-
koan Gorka Fraile durangarraren
senideek ere parte hartu zuten.
Gaixorik dauden presoek askata-
suna eskatu, eta euren eskubideak
bermatzea "premiatzkoa eta hil ala
bizikoa" dela nabarmendu zuten.



Ekimena aurkezteko prentsaurrekoa, Bilbon.

Durangoko eta Iurretako pentsiodunak, indarrak batuta kaleetan



Dozenaka pentsiodun elkartu ziren asteleheneko manifestazioan.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Durangoko eta Iurretako pen-
siodunek indarrak batu zi-
tuzten, astelehenean, zutabe
bik osatutako manifestazioa
eginda. 100 urte bete dira derri-
gorrezko erretiroa eta beste zen-

bait eskubide lortu zirenetik,
eta, hori dela-eta, Madalenan
amaitu zuten protesta, Gizarte
Segurantzako bulegoa han da-
goelako. "Pentsio duinen alde
borrokan" jarraitzeko deia egin
zuten.

“Dinamika hau 40 urteko ibilbidea berresteko aukera ere bada”

'Bulkada Eguna' ospatuko dute martxoaren 23an Elorrión, Jarrairen sorkuntza gogoratzeko



Maite Barreña eta Pello Zabarte.

DURANGALDEA • ARITZ MALDONADO

**Ernai eta Aitzina gazte antolakun-
deek 'Bulkada berrien garaia da'**
**dinamika jarri zuten martxan udaz-
kenean, Jarrairen sorreraren 40.**
urteurrena gogoratu eta hainbat
belaunalditako kideen harremanak
estutzeko. Maite Barreña Oceja
(Durango, 1968) eta Pello Zabarte
**Narbaiza (Zaldibar, 1997) belau-
naldi horietako bi dira.**

Zein da dinamikaren funtsa?

Pello Zabarte: Gazte antolakun-
dearen sorreraren 40. urteurrena
denez, ikasturte osoko dinami-
ka jarri dugu martxan. Irailean,
1.000 militante eta militante ohik
agerraldia egin genuen Leitzan
(Nafarroa), dinamikari hasiera
emateko. Durangaldean eta Euskal
Herri osoan hainbat ekimen egin
dira, gazte militanteek jasandako
errepresioa gogoratzeko. Memo-
ria Astea edo belaunaldi guztien
harremanak estutzeko bazkariak,
besteak beste.

Harremantze hori garrantzitsua
izango da lotura mantentzeko.

Maite Barreña: Militantziaren edo

aktibismoaren ibilbide bat azter-
tu, gogoratu eta pertsonoi zelako
eragina suposatu digun ikustea
da egiten dena. 40 urteotan gauza
asko gertatu dira eta belaunaldi
bakoitzak bere bizipenak ditu.
Zenbait belaunalditako militante
eta aktibistak hori konpartitzeko
elkartzeak asko balio du. Nik akti-
bismoaren garrantzia azpimarra-
tuko nuke, banakotasun horreta-
tik kolektibora salto egiteak duen
eragina ze inportantea izan zen or-
duan eta ze inportantea den orain.
Aurrerapausoak kaletik datoz, ez
instituzioetatik. Beraz, herritarrak
antolatzen badira daude bizirik
herriak. Horrela bizi izan nuen eta
bizi dut nire militantzia, jendarte
hobe baten aldeko apustu modura.

P.Z.: Lau hamarkadatan gauza asko
aldatu dira, baina gazte antolakun-
dearen helburuek berdina izaten
jarraitzen dute, eta, hori lortzeko,
antolakuntza eta borroka dira

oinarria gaur egun ere. Dinamika
hau horren berrespen bat da.

**Ekitaldi garrantzitsu bi egingo ditu-
zue laster.**

P.Z.: Dinamikaren mamia herrie-

tan dago, eta hori lortzen ari da,
bazkari, aurkezpen eta ekimenak
eginez. Garrantzitsuenak, baina,
belaunaldi berriak gazte antola-
kundeari lotzea da. Mugarri bi
ditugu hor. Bata martxoaren 23an
Elorrión ospatuko den Bulkada
Eguna, eta bestea Lemoako Gazte
Topagunea, apirilean.

M.B.: Borroka liskarragaz lotzen da
sarri, baina, urteotan, borrokatze-
ko modu desberdinak daudela iku-
si da, eta borroka bera eskubideak
lortzeko eta bermatzeko bide bat
dela. Orain pentsiodunak egiten
ari direna edo emakume feminis-
tok egiten ari garena borrokatzea
da. Gazte antolakundeak erakutsi
du kaleak aldarrikatzeko, propo-
samenak mahai gainean jartzeko
eta defendatzeko espazioa direla,
baina lortutako hori arriskuan
egongo da beti, belaunaldi berriak
horren alde borrokan ez badaude.
Gaur egun berezkoz hartzen
diren gauzak borroka bat aktibatu
ostean lortu dira; adibidez, derrigo-
rrezko soldaduska kentzea. Horixe
da gazte militantziaren gakoa,
badagoela zer hobetu.

ERRIGORA

MARTXOAREN 7TIK 22RA

ESKATU NAFARROA HEGOALDEKO OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA —5 LITROKO BIDOIETAN— ETA ARROZA ZEIN KON-
TSEBAK —12 ONTZIKO SORTETAN— EKOIZLEAREN JATORRIZKO PREZIOAN WWW.ERRIGORA.EUS WEB GUNEAN



Durangaldeko bost udalen babesa lortu du 24 orduko pediatria eskatzen duen elkarteak

Abadiñoko, Berrizko, Izurtzako, Mañariko eta Zaldibarko udalek bat egin dute Pediatria 24h elkartearen aldarriagaz

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

24 orduko pediatria zerbitzua eskatzen duen elkarteak Durangaldeko bost udalen babesa jaso du dagoneko: Abadiñokoarena, Berrizkoarena, Izurtzakoarena, Mañarikoarena eta Zaldibarkoarena. Pediatria 24h taldeak mozio bat aurkeztu du osoko bilkuretan eztabaidatzeko, bere aldarria instituzioek ere zabaldu dezaten.

Zerbitzua 15:00etatik 17:00ak artekoa da; egun osora eta asteburuetara luzatzea gura dute

Abadiñon, Berrizen, Izurtzan eta Mañarian aho batez onartu zuten; Zaldibarren gehiengoz soilik, kasu horretan EAJk aurka bozkatu zuelako. Durangon iazko maiatzean proposatu zuten mozioa, eta hor ere ez zuten babesik erakutsi EAJ eta PSE-EEren gobernu taldeak. Ondorioz, ez zuen aurrera egin, eta hori gogoratu du elkarteak, gobernuari kritika eginez. Bozkaren norabidea bata zein bestea izan, pediatria gutxi daudela onartu izan du EAJk bilkuretan, eta "planifikaziozko ikerketa" eta "hausnarketa" eskatu ditu.



Pediatria 24h plataforma iaz sortu zen Landakon eginiko ekitaldi batez, eta jendetza batu zen.

Landakoko osasun zentroan eskaintzen den larrialdietako pediatria zerbitzua 15:00etatik 17:00ak artekoa da, eta hori egun osora eta asteburuetara luzatzea gura dute. Nabarmendu dute Durangaldean 12.500 ume daudela, eta ez dute begi onez ikusten umeek larrialdi bat duten bakoitzean Gurutzetako ospitaleraino joan behar izatea.

Gainera, lurraldeka desoreka dagoela begitantzen zaie.

Ez dute begi onez ikusten umeek larrialdi bat dutenean Gurutzetaraino joan behar izatea

Bestalde, Durangon mediku eta erizain gehiago ipintzea eskatu du Herriaren Eskubideak. Mediki bakoitzeko 1.450 pazienteko kupoa kontuan hartuta, Durangon 1.550 paziente hartzen dituztela ohartarazi du. EH Bilduk babestu egin du mozioa. EAJ eta PSE-EE ez dira iritzi berekoak, eta diote "dimentsio egoia" dagoela baliabideetan.

Amankomunazgoak 108.000 euro ipiniko ditu euskara, gizarte eta kirol laguntzetan

DURANGALDEA • M.O.

Durangaldeko Amankomunazgoak 108.000 euro ipiniko ditu euskara, kirol eta gizarte ekintzetako diru-laguntzetarako. Euskararen kasuan, 3.000

3.000 euro erabiliko ditu komertzioen erroteruluak eta webguneak euskaratzen laguntzeko

Aniztasun funtzionala dutenekin lan egiten duten elkarteentzat 30.000 euro gorde ditu

euro erabiliko ditu komertzioen erroteruluak eta webguneak euskaratzen laguntzeko, eta 8.000 euro euskara sustatzen duten ekintzetarako.

Gizarte ekintzan, aniztasun funtzionala dutenekin lan egiten duten elkarteentzat 30.000 euro gorde ditu, eta 20.000 euro garapeneko lankidetzan dabil-tzanentzat.

Kirolean, atletismo-pista erabiltzen duten elkarteentzat 40.000 euro daude, eta 7.000 belodromoa darabiltenentzat.

Atxondoko Udalak 60.000 euro inbertituko ditu eskolan jantokian sukალdea jartzeko



Aurrekontua onartuta, eskolan sukალdea eraikitzeko pauso bat eman dute.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen astean 2019ko aurrekontuak onartu zituzten Atxondon, gobernu taldearen (EH Bildu) aldeko botoekin. EAJ abstenitu egin zen. "Ez dugu aurrekontuetan parte hartu eta azken urteotako eskariak ez dira sartu. Beraz, abstenitu egiten gara", kritikatu zuen Gorka Garate EAJko kideak.

Aurten, eskolan jantokia jartzeko proiektuak eta Urkuzu berritzeko lanek izango dute diru atalik handiena inbertsioetan. Esaterako, 60.000 euroko diru atala jarriko dute eskolarako. "Ikusi egin beharko da ea Jaur-laritzak nola bideratzen duen eskolan jantokia jartzearen gaia, baina, gure aldetik behintzat, horretarako konpromisoa hartu dugu", adierazi zuen David Cobos alkateak.

1.437 produktu bidali dituzte Berriztik Saharara, hango herritarrei laguntzeko

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken hilabete hauetan, sahara-rreri laguntzeko produktuak batzen ibili dira Berrizen. Udalak ohar bidez jakinarazi duenez, bilketak erantzun ezin hobea izan du herritarren artean; guz-

Azken hilabete hauetan egin den bilketak erantzun ezin hobea izan duela adierazi dute

tira, 1.437 produktu jaso dituzte. Hori dela eta, antolatzaileek eskerrak eman dizkiete bilketetan parte hartu duten herritarrei, eta urtean zehar egiten diren beste bilketa batzuetan parte hartzeko deia egin diete.

Elorrioko auzoak ez hiltzeko gakoa jende berria landa eremura bizitzera joatea dela jakinarazi dute bertako emakumeek

Landa eremuko emakumeen gaur egungo egoeraren argazkia edukitzeko asmoz, Leire Milikuak diagnostiko bat landu du Elorrioko Udalaren laguntzagaz

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Landa eremuko emakumei ahotsa eman eta eremu horretako emakumeen gaur egungo egoeraren argazkia izateko asmoz, Leire Milikuak arkitektoa diagnostiko bat lantzen ibili da 2018ko otsailaz geroztik, Elorrion eta Abadiñon.

Otsail amaieran, diagnostikoaren ondorioak plazaratu zituen Elorrion. Bertan jakitera eman zuenez, diagnostiko honen helburu nagusietako bat landa eremuko emakumeak zer arduratzen dituen jakitea eta agentzia gaitasunaren aldarri bat egitea izan zen. "Garrantzitsua izan da emakumei adieraztea gu subjektu aktiboak garela, ez hainbat gauza gertatzen zaizkigun objektuak. Beraz, euren egoeraren argazkia nolakoa den ikusita, antolatzen badira zer lortu dezaketen emakumei adieraztea oso garrantzitsua izan da", aitortu du abadiñarrak.

Diagnostikoa egiteko prozesuari dagokionez, lehenengo, banakako bederatzi elkarrizketa egin zituzten, eta ostean, saio kolektiboak



Landa eremuko 23 emakumek parte hartu dute diagnostikoan.

Diagnostikoa egiteko, banakako elkarrizketak eta saio kolektiboak egin zituzten Elorrion

Gazeta auzoko Lagunarte Kofradian. "Elkarrizketatutako bederatzi emakumei landa eremuko beste emakume batzuekin etortzeko deia egin genien, eta, guztira, 23 emakume elorriarrek parte hartu dute diagnostikoan", adierazi du Milikuak. Gainera, saio kolekti-

bo hauekin emakumeen arteko saretze bat lortu gura izan dutela aitortu du.

Ondorioak

Saio horietan hainbat ondorio atera zituzten emakumeek. Horietako bat Elorrioko auzoak husten dabil-

tzala izan zen. Bertan adierazi zuten, auzoak ez hiltzeko gakoa jende berria landa eremura bizitzera joatea da. Beraz, erraztasunak eskaintzea lehentasunezko jotzen dute gazteak landa eremura joateko.

Oinez zein bizikletan modu seguruan eta arriskurik barik ibiltzeko aukera gutxi dagoela esan dute

Bestalde, bideen azterketa egitea ere oso garrantzitsua da landa eremuko emakumeen ustez. Hauen hitzetan, oinez zein bizikletan joanda toki gutxitan dago modu seguruan eta arriskurik barik ibiltzeko aukera. Hori horrela, espaloiak edo bazterbideak egiteko eskatu dute. Horregaz lotuta, auzoetako seinaleztapena ez dagoela ondo eta GPS koordinatuak txarto daudela kritikatu zuten. Horrez gainera, auzotaxiaren ordutegia zabaltzea ere eskatu diote udalari diagnostikoan parte hartu duten emakumeek.

GLA. Zure hurrengo helmuga zeinahi ere den.

Eraman ezazu orain AMG Line opari*.

Bai hirirako, bai hiritik ihes egiteko diseinaturata. GLA-k egoera bakoitzean onena eskaintzen dizu. DYNAMIC SELECT sistemari esker, zure etorkizuneko planetarako egokitu dezakezu, gehien komeni zaizun gidatzeko era aukeratuz: ECO hiritik zehar, Confort bidaletarako, Individual errutinarako eta Sport adrenalina nahi duzunean. Prest al zaude?

*AMG Line opari. Adibidea GLA 200 d, 1.987€ balio duena, BEZ (%21) + matrikulazio-zerga (%4,75) barne. Baliozko eskaintza 2019/03/31ra arte matrikulatutako ibilgailuentzat. Argazkiko modeloa agian ez dagokio eskaintzan agertutakoari. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es-en

AMG Line ekipamendu berezia:

- AMG kit estetikoa
- ARTICO larruzko kirol-eserlekuak
- Larruzko 3 erradioko funtzio anitzeko kirol-bolantea
- LED High Performance auto-argiak
- 48,3 zm-ko AMG aleaziozko hagunak (19") eta 5 erradio



Mercedes-Benz

Aguinaga

Mercedes-Benz Kontzesionario Ofiziala
Borua Industrialdea, 2. Nabea 3. 48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630 17 47. www.aguinaga.mercedes-benz.es

Interneteko konexioa
35 eta 50 mega
artera handituko dute
Mallabiko auzoetan

MALLABIA • J.D.
Udalak interneterako konexioa hobetu gura du auzoetan. Gaur egun, mega gutxi batzuetako abiaduran dabil eta hedadura hori 30etik 50 megara handitu

San Pedro ermitaren
inguruan antena bat jarri
eta herriguneko zuntz
optikora lotuko dute

gura du. Hori lortzeko, antena berri bat jarriko du aurtengo urtean zehar San Pedro ermitaren inguruan. Herrigunera heltzen den zuntz optikoaren sarea luzatu eta antena berrira konektatuko du.

Ikerketa geoteknikoa
egin dute, Bitañorako
bidean gertatu zen
lur-jausia konpontzeko

IZURTZA • J.D.
Bitaño auzorako bidean lur-jausi bat gertatu zen iaz, eta bidea bera zein ingurua kaltetu zituen. Ez da toki hartan luizi bat gertatzen den lehen aldia, eta arazoari ahalik eta irtenbiderik egokiena emateko, ikerketa geotekniko bat egin du udalak, zer lan gauzatu behar diren jakiteko. Lanak egiteko dirua udal kontuko soberakinetik hartuko dute. Konponketa "ahal den arinen" egitea da helburua, Lorea Muñoz alkatearen esanetan.

Jai eredia eta drogak
berbagai, Gaztetxeak
antolatu dituen
jardunaldietan

OTXANDIO • J.D.
Jai ereduaren eta drogen inguruan hausnartzeko, ekitaldi sorta antolatu du Otxandioko Gaztetxeak. Gaur, 18:00etan, Asier Aspuru hitzaldia eskainiko du. Aspuru *Drogak, kapitalismoa eta mugimendu erradikalak* izeneko liburua du idatzita. Martxoaren 22an, 18:00etan, drogen kontsumo arduratsua landuko dute, tailer batean. Azkenik, hilaren 30ean, 18:30ean, Otxandioko jai ereduaren gaineko eztabaida irekia egingo dute.

Mañarian egon daitezkeen hidrokarburoak
ikertzeko baimenaren kontra egin du udalak

Jaurlaritzak SHESA erakunde publikoari emandako baimen baten eragin eremuan dago Mañaria; EH Bilduk eta EAJk egitasmoa "geratzeko" eskatu dute, mozio baten bidez



Joan zen asteko eguaztenean egindako udalbatzarrean eztabaidatu zuten mozioa.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO
Iazko urrian, Eusko Jaurlaritzak zenbait baimen eman zituen Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat eremutan egon daitezkeen hidrokarburoak ikertzeko. Mañaria baimen horietako baten eragin eremuan dago. Ildo horretatik, egitasmoa geratzeko eskatzen duen mozioa aurkeztu zuen EH Bilduk joan zen asteko udalbatzarrean, eta EAJk babestu egin zuen.

Jaurlaritzak Euskadiko Hidrokarburoak (SHESA) erakunde publikoari eman zizkion baimenak. Euskal Energiaren Erakundeak

EH Bilduk eta EAJk
"kezka" adierazi dute
baimenak eragin ahal
dituen ondorioen aurrean

sortutako erakunde honek EAEko energia hornidura dibertsifikatzeko laguntzea du helburu. Lurrazpian dauden hidrokarburoak dira SHESAren jarduera eremu bat. Ildo horretatik, hainbat eremu ikertzeko 2011n egindako eskaeren erantzuna da iazko urrian jaso zuena. Eremu horiek *Landare, Lore* eta *Sustrai*a deitzen dira eta Mañaria *Lore* esparruaren barruan dago, Durangaldeko beste herri

batzuekin batera. Horren aurrean, aho batez onartutako mozioaren bidez, udaleko alderdi biek "kezka" adierazi dute baimenak udalerrira ekarri ditzakeen ondorioak direla-eta. Mañarian mota horretako

Energia berriagarriak
indartzeko proiektuetara
bideratutako laguntzak
"handitzeko" eskatu dute

Mozioaren arabera,
Erkidegoko azaleraren
%50 baino gehiago dago
baimen denen eraginpean

ikerketak "geratzeko" eskatzen diete SHESAri, Euskal Energiaren Erakundeari zein Jaurlaritzari. Aldi berean, ikerketa mota horietara barik, energia berriagarriak indartzeko proiektuetara bideratutako diru-laguntzak "handitzeko" eskatzen dute.

Egoera bere osotasunean hartuta, baimen berriei Euskal Autonomia Erkidegoko azaleraren "%50 baino gehiago" geratzen da hidrokarburoak ikertzeko baimenen eraginpean, onartutako mozioak jasotzen duenez.

Ilargi argazki taldeak argazki zaharren kopia erraldoiak
jarri ditu Zaldibarko hainbat leku esanguratsutan

Dozena bat argazki Jose Antonio Agirre parkeko estalpean, Olazar Dorretxean eta Solobarria futbol zelaian jarri dituzte

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO
Denboraren joanak eduki duen eragina ikustarazteko, Ilargi argazki taldeko kideek argazki erraldoiak jarri dituzte Zaldibarko zenbait tokitan. Oraingoan, Jose Antonio Agirre parkeko estalpean, Olazar Dorretxean eta Solobarria futbol zelaian jarri dituzte olanazko kopiak.

Ilargi argazki taldeak 2.000 argazki historiko baino gehiago jarri zituen Zaldibarko Udalaren esku, herritarrek ikusi ahal izateko. Oraingo honetan, baina, haratago joan gura izan dute. "Tokian bertan, ikusgarriagoa eta nabariagoa da irudi bien arteko aldaketa", adierazi du Delfin Zubizarreta Ilargiko kideak.

Jarri dituzten argazkirik gehienak 60ko eta 70eko hamarkadeta-

Ilargi argazki taldeak
2.000 argazki inguruko
fitxategia jarri zuen
Zaldibarko Udalaren esku

ko argazkiak dira, eta nabariak dira aldaketak. "Dorretxetik ez da ia ezer geratzen, eta argazkian osorik ikusi daiteke", dio Zubizarretak. Horrez gainera, Solobarrian lehenbiziko futbol taldeetako argazkiak jarri dituzte, gizonezkoen zein emakumezkoen lehenbiziko taldeen argazki bana. Miren Maortua euskara irakaslea bere ikasleekin agertzen den argazki bat ere jarri dute, 1954. urtekoa. Datozen asteetan gehiago jartzeko asmoa dute Ilargiko lagunek.



Emakumezkoen zein gizonezkoen lehenbiziko futbol taldeen argazki bana jarri dute Solobarrian.



Braun 70 taldea, Elorrión ateratako argazkian.

Hareek denporak!

Braun 70, bizarra mozteko makinatik atera zuten izena

Bazen behin erromeria talde bat Elorrión, 'Ovnis' izeneko. Sasoi hartan, 70eko hamarkada hasieran, asko berba egiten omen zen objektu hegalaria ezezagunei buruz. Baina izen bereko beste talde bat zegoen eta aldatzea erabaki zuten. 1970. urtea zen eta bizarra mozteko Braun markako makinak modan zeuden. Ideia bi horiek uztartuta jaio zen Braun 70. Ezkerretik hasita, honako hauek dira argazkiko

kideak: Valentin Berezibar, Jose Ramon Basterretxea, Juan Perez, Jose Ramon Berezibar, Jose Quesada eta Lauri Moisen. Bost bat urtean, makina bat erromeria animatu zituzten Euskal Herrian zein Burgos inguruan. Normalean, gaztelaniazko bertsioak jotzen zituzten, baina euskaraz ere animatzen ziren. Loretxoak abestiagaz, esaterako. Soldaduskara joateko ordua hel-tzean desegin zen taldea.

Politikan

Dani
Maeztu Perez
EH Bildu



...eta ikusi arte

Orain dela 16 urte hasitako bideari amaiera emateko momentua heldu da. Ez, ez dut politika utziko, gaur bertan Bel Pozuetari entzun diodan bezala arnasa hartzea edo isilik egotea ere politika egitea delako. Baina, bai, ordezkaritza politikoa-ren orrialdea pasatuko dut. Nire azken zutabe hau eskerrak emateko erabili nahi dut, ez naiz asko luzatuko, Anbotokoek ez baitadate espazio gehigarririk emango azken zutabea idazteko. Beraz, nahi eta nahi ez egin beharreko aipamenak egiteko erabiliko dut. Lehenengo eta behin, Ionan, Eider, Marisol, Jonbi, Iker, Aritz eta Rosa, eskerrik asko, azken lau urte hauetan herri honek behar zuen ezkerreko abertzaleen esparru politikoari forma emateagatik Durangon. Siglak eta jatorriak kontuan hartu barik, aurrera begira jarri garelako, Durango herritarrekin batera eraiki daitekeela demostratu dugulako, eta ez interes politiko partikularrei lehentasuna eman. Gure eztabaida eta diferentzia guztiekin, zintzotasunez eta harrotasunez, gobernatzea merezi zuen lantaldea osatu dugula uste dudalako. Aniztasuna eta elkarlana dirrelako EH Bilduren osagai nagusiak. Zuei eskerrak eman, Durangon EH Bilduri forma ematen jarduten duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Eta, bukatzeko, ibilbide honetan zehar dozenaka pertsona aipatu beharko nituzke eta, hala ere, baten bat ahaztu; beraz, bakar bat aipatuko dut. Militante hitza asmatu zuenak ziurren zu bezalako pertsona konprometitua edukiko zuelako buruan, Anparo, mila esker beti hor egoteagatik. Ez dakit zelan eskertu zure konpromisoa, hasieran Aralarren, eta gerora, gure barruan zeuden zalantzak uxatuz, apustu irmoa eginez EH Bilduren alde, eta horretaz gain, laguntzeko beti prest egon zarela. Esan behar dizut, amore emateko zorian egon naizen momentuetan beti gogoan eduki dudala zu bezalako pertsonak ordezkatzeko lagundu didala. Bukatzeko, gaizki esanak barkatu eta ondo esanak kontuan hartu.

Durangaldea asteen

Euskal Herriaren eta Gure Esku Dagoren etorkizuna berbagai izango du Zubiagak

Elorrio | Elorrioko Gure Esku Dago dinamika antolatuta, Mario Zubiaga EHuko zientzia politikoetako irakasleak *Euskal Herria eta Gure Esku Dago: Eta orain zer?* berbaldia eskainiko du martxoaren 21ean, Iturri Kultur Etxean, 19:00etan. Legebiltzarrean etorkizuneko estatus berriari buruzko proposomena mahai gainean dagoen honetan, Gure Esku Dago dinamika jakitera eman dute herritarren nahiak plazaratzeko antolatu dutela solasaldia.

Otxandioko Koikili Aterpetxeak kalitate turistikoaren saria jaso du

Otxandiol | Egunotan, kalitate turistikoaren saria eman diote Otxandioko Koikili aterpetxeari. Beraz, dagoeneko eskualdeko hamaika erakunde edo enpresek jaso dute saria. Honako hauek dira gainerakoak: Alluitz Natura, Durangoko Turismo Bulegoa, Eguzki B&B ostalua, Elorrioko Turismo Bulegoa, Garaiko Landetxea, Karteruena Landetxea, Lurra Adventure, Oka Landetxea, Saltsan katerin eta Sinergia 43°.

Durangaldeko neska gazteen topaketa egingo dute, bihar, Zaldibarko Gaztetxean

Durangaldea | Iazko arrakastaren ostean, beste urte batez Durangaldeko neska gazte feministen topaketa antolatuko du eskualdeko Biribilketa gazte feministen sareak. Martxoaren 16an izango da hitzordua, Zaldibarko gaztetxean. Tailerrak eta elkar ezagutzeko tarte egongo dira, besteak beste. Horrez gainera, arratsaldean tertulia egingo dute, *Gazte mugimendua feminista da?* ideari buruz hausnarketa egiteko.



Saibigainen gudarien omenezko plakari eraso egin diotela salatu dute asteen

Mañaria | Astelehenean Saibigaineko gurutzea margoketekin topatu zuela salatu zuen mendizale batek.

1936ko kolpe faxistaren ostean hasitako gerra zibilean puntu esanguratsu bat izan zen Saibigaineko tontorra, Bizkaiko muga babesteko fronteetako bat izan zen eta. Bizia bertan galdu zutenen omenez plaka bat dago jarrita gurutzean. Asteon, ezezagunen batek plakari eraso egin diola salatu du mendi buelta egitera joan zen herritar batek.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194





Kartoi biraka

ANTZERKIA
DURANGO :: Martxoak 17

Munduari itzulia emango dio Markeliñeren antzezlanak

Markeliñe Antzerki Talde zornotzarrak *Kartoi biraka* antzezlanak plazaratuko du, domekan, San Agustin kultur gunean, 5 urtetik gorako pertsonentzat. 18:00etan hasiko da. Antzezlanean, pertsonaiek munduari itzulia emango diote, biltegitik irten barik. Puxika batean, itsasontzi batean eta gamelu baten gainean egingo dute bidaia.

Antzezlanak ez du berbarik behar, izan ere ikusleak aukeratu du keinu bakoitzak iradokitzen dion berba eta eszena bakoitzaren kolorea.



Dj Bull

JAIALDIA
IURRETA :: Martxoak 22

Iurretako Juan Orobiogoitia institutuko ikasleek jaialdia prestatu dute martxoaren 22ra-ko, ikasbidaia egiteko dirua bartzeko. Askondo kaleko aterpean

izango da, 19:00etan hasita. Mr JL eta Lehian taldeen kontzertua egongo da, eta Dj Bullek jarriko du musika. Zozketak eta sorpresak ere iragarri dituzte.

Martxoaren 15ean

ABADIÑO erakusketa
'San Blas 2019' argazki erakusketa, Errota kultur etxean.

ABADIÑO ginkana
Abadiño Express-en izena emateko azken eguna. Katalamixon elkarteak antolatuta, martxoaren 24an, 10:00etatik 14:00etara, Mutsaratzeko dorretxean hasita. 2005-2008 urte bitartean jaiotakoei zuzenduta. Informazioa: katalamixon@gmail.com / 654 789 709/ gazteria@abadino.org / 94 466 94 20

DURANGO musika
Electro Swing gaua: Swingrowers + Koban, 10:00etan, Plateruena kafe antzokian.

BERRIZ antzerkia
'Lau' (Salto konpainia), 18:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

IURRETA antzerkia
'Futbolariak eta printzesak' (Eidabe), 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA antzerkia
'Lur' (Xake Produksioak), 20:15ean, Zornotza aretoan. 7 urtetik gorakoentzat.

Martxoaren 16an

BERRIZ musika
Elena Setien, 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

BERRIZ jolasak
Ur parkea, 10:30etik 13:30era, 4 eta 11 urte bitarteko umeentzat, igerilekuan.

ELORRIO dantza
'Lau kastore' (Ma Kolektiboa), 19:30ean, Arriola antzokian.

IURRETA aisialdia
Etxego gaztelekua zabalik, 17:00etatik 20:30era.

Martxoaren 17an

DURANGO antzerkia
'Kartoi biraka' (Markeliñe-Zornotza), 18:00etan, San Agustin kulturgunean. Bost urtetik gorakoentzat.

Martxoaren 20an

ATXONDO dokumentala
'Ongi etorri' dokumentala, 19:00etan, udaletxean. Atxondo Harrera Herria taldeak antolatutako Sentsibilizazio Astearen barruan.

Martxoaren 21ean

ATXONDO deialdia
Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean manifestazioa, 19:00etan, Bilbon. Harrera Herria taldeak parte hartzera deitu du, Sentsibilizazio Astearen barruan.



Klown taldearen kontzertua, Abadiñon 'Pelea por tu vida' diskoaren aurkezpena

Klown taldeak *Pelea por tu vida* diskoa aurkeztuko du zapatuan, martxoaren 16an, Abadiñoko Gaztetxean. Durangaldeko taldeak Konorte taldea

izango du taulakide zapatuan. Kontzertuak 22:00etan hasiko dira.

Klown taldeak eskainiko duen kontzertua lehenengoa

izango da euren disko berria aurkezteko. "Diskoa grabatzea lan gogorra izan da, baina oso gogobetegarria aldi berean", adierazi dute taldekideek.

DURANGO antzerkia
La noche boluda,
21:00etan, Plateruena kafe antzokian.

DURANGO antzerkia
‘Zer gertatu ote zitzaion Ana Garciari’ (Pabellón 6ko Gazte Konpainia-Bilbo), 19:00etan, San Agustin kulturgunean. Bost urtetik gorakoentzat.

DURANGO musika
Dj BeA aKa Owl,
22:00etan, Txoria Nuen Maite tabernan. Jan and Jai egitasmoaren barruan.

IURRETA ikastaroa
Poesiaren eguna: Poropopoesia tailerra, LHko 3. mailako ikasleentzat. **R.A.P tailerra** DBHko 2. mailakoentzat.

IURRETA hitzaldia
‘Aurretiazko borondateak’, 17:30ean, Nagusien Etxean. Durangoko Amankomunazgoko Adinekoen Zerbitzuak antolatuta.

Martxoaren 22an

ATXONDO kirola
Futbito partiduak, 17:00etan, Atxondo Harrera Herria taldeak antolatutako Sentsibilizazio Astearen barruan. Horren ostean, **pintxo potea** herriko tabernetan.

IURRETA errezitaldia
‘Hitzak lagun’, poesia bidezko kontaketa Pello Añorgaren eskutik. Herri bibliotekan: 17:30ean (3-4 urtekoak, lagunduta) eta 18:00etan (5 urtetik gora).

IURRETA errezitaldia
‘La Donna Inmobile’, Itziar Rekalde ipuin kontalariaren eskutik, 19:00etan, herri bibliotekan. Nagusientzat.

Martxoaren 24ra arte


BERRIZ izen-ematea
Berrizburu kiroldegiko jardueretan izena emateko epea, zabalik. Martxoaren 24ra arte.

Martxoaren 30era arte

BERRIZ erakusketa
‘OUKA LEELE’. Barikuetan, 18:30etik 20:30era. Asteburuan, kultur ekintzen ordutegian.

Martxoan zehar

ABADIÑO izen-ematea
Udalekuetarako izen-ematea. Martxoaren 22ra arte, Udal Mediatekan edo Errota kultur etxean.



Martxoak 21 · 21:00etan
LA NOCHE BOLUDA
Antzerkia



Martxoak 24 · 12:00etan
JOLASAREN TXOKOA
Haurrentzako ekintza

www.plateruena.eus



PLATERUENA
Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatebtea@plateruena.net



Azucena Fernandezen 'Argiak eta Itzalak' erakusketa, Durangoko Arte eta Historia Museon.

DURANGO erakusketa
‘ERRegistruak. Buruek, zuluak eta espiluek’. Amaia Asategi Iturrালের লানক. Arteka liburu-dendan.

Apirilaren 1era arte

ABADIÑO lehiaketa
San Prudentzio jaietarako kartel lehiaketa. Apirilaren 1era arte aurkeztu daitezke lanak, Udal Mediatekan edo Errota kultur etxean. Saria: 300 euro.

Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **El reino**
barikua 15: 22:00
domeka 17: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Mula**
barikua 15: 22:00
zapatua 16: 20:30
domeka 17: 20:30
astelehena 18: 21:00
martitzena 19: 18:00
eguztzena 20: 20:00
• **El gordo y el flaco**
barikua 15: 19:30/22:00
zapatua 16: 18:30/22:30
domeka 17: 18:30/20:30
astelehena 18: 18:30/21:00
martitzena 19: 18:00/20:30
eguztzena 20: 20:00

• **La mujer de la montaña**
barikua 15: 19:30
zapatua 16: 19:30
domeka 17: 18:30
astelehena 18: 18:30
martitzena 19: 20:30
• **El niño que pudo ser rey**
barikua 15: 19:30/22:00
zapatua 16: 17:00/19:30/22:30
domeka 17: 17:00/20:00
astelehena 18: 18:30 /21:00
martitzena 19: 18:00/20:30
eguztzena 20: 20:00

• **Corgi, las mascotas de la reina**
zapatua 16: 16:30
domeka 17: 16:30
• **Cómo entrenar a tu dragón 3**
zapatua 16: 17:00
domeka 17: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **La mujer de la montaña**
zapatua 16: 22:00
domeka 17: 20:00
astelehena 18: 20:00
• **La gran aventura de los Lunnis y el libro mágico**
domeka 17: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Una cuestión de género**
zapatua 16: 19:30/22:00
domeka 17: 20:00
astelehena 18: 20:15
• **Cómo entrenar a tu dragón 3**
zapatua 16: 17:00
domeka 17: 20:00
• **Día 1**
martitzena 19: 20:15

ANBOTOkO agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

“Gauzez barre egin behar da; umoreak amildegira jaustetik libratzen gaitu”

Eugenia Manzanera ipuin kontalaria ‘De amor y de muerte’ helduentzako narrazio saioa egingo du Durangoko Bizenta Mogel bibliotekan, martxoaren 15ean; maitasunaren eta heriotzaren inguruko istorioak kontatuko ditu salamancarrak



Eugenia Manzanera de la Fuente

Ipuin kontalaria
Salamanca | 1970

ANTZERKIA • KAROLINA SUAREZ

Barikuan izango da saioa, 19:00etan, eta leku mugatua da goenez, aurretik jaso beharko da gonbidapena, bibliotekan. Zapatu eguerdian, 12:00etan, haurrentzako ipuin kontaketa saioa eskainiko du: 'No me comas... y punto'.

Zer kontatzen du 'De amor y de muerte' ahozko narrazioak?

Saioaren hasieran esaten dudan

moduan, narrazioaren amaieran hil egiten da mundu guztia. Zenbait istorio kontatzen ditut eta guztiak maitasunaren ingurukoak dira. Guztiak dauka hasiera eta amaiera bat, baina horrek ez du esan gura mundua amaitu egiten denik.

Zer da egingo duzuna?

Ahozko narrazioa egingo dut. Antzerkiaren mundutik natorrenez, nire kontakizunak teatralak izaten

dira. Ipuin batean maskara bat erabiltzen dut eta XV. mendeko komikoen moduan kontatzen dut istorioa. Denetarik dago saioan.

Umoretik abiatutako kontakizuna izango da.

Gauzez barre egin behar da; umoreak amildegira jaustetik libratzen gaitu. Umoreagaz, min egiten diguten egoerak ere gainditu ditzakegu, desamodioa eta heriotza, esate baterako.

Maitasuna eta heriotza.

Bizitza dira. Zer da bizitza? Maitasuna eta heriotza. Jaio egiten gara, maitatu egiten gaituzte, maite dugu eta hil egiten gara. Orduan, *De amor y de muerte* bizitzaz berba egitea da. Bizitzaz umoretik berba egin ahal bada, askoz ere hobeto.

Nola sortu zenuen obra hau?

Ipuinak sortzen joan naiz eta ipuinen arteko loturak egiten. Kontzeptu batzuk beste batzuekin ehundu

eta askok maitasunaz eta heriotzaz berba egiten zutela konturatu nintzen. Horra hor narrazio saioa. Frantsesek orgasmoari *le petite mort* esaten diote, eta horrela amaitzen dut, bakoitza bere klimaxera heldu dadin.

Ipuin kontalaria ala antzezlea zara?

Orain dela gutxi, antzezle narratibo moduan definitu ninduten. Antzerkigintzan hasi eta urte bira, ipuin kontalari lanetan nengibilen. Kontatzea oso pertsonala da, bakoitzak sentitzen duenaren arabera kontatzen eta entzuten du. Espazioaz eta *tempo*az daukadan ikuskeragatik, egiten ditudan narrazioetan antzerkia dago, eta alderantziz ere bai.

“

Guztiak dauka hasiera eta amaiera bat, baina maitasun guztiek ere, baina horrek ez du esan gura mundua amaitu egiten denik”

Ze publiko motagaz sentitzen zara erosoan?

Lan on bat egiteko, publikoa zure alde eduki behar duzu, eta ganorazko espazio bat. Berdin dit hartzailea heldua edo umea den. Kontua berdinen arteko harreman ona sortzea da. Laugarren horma ez da inoiz nire paretarik gogokoena izan, eta ez dut erabiltzen. Hartzailea edozein dela ere, gustura sentitzen naiz.

'No me comas... y punto' ere familia osoarentzat egingo duzu.

Ipuinetan asko jaten da: otsoak hiru txerriak jaten ditu, Hanselek eta Gretelek txokolatzeko etxe bat jan gura dute eta, aldi berean, sorginak eurak jan gura ditu... Jatea da dena, ze, osterantzean, hil egiten gara. Beste saioan guztiak hiltzen badira ere, honetan bada beste norbait jan gura duen bat.

Ma Kolektiboak 'Lua Kastore' obra estreinatuko du zapatuan Elorrion

Arriola Antzokian izango da emanaldia, 19:30ean; lan poetikoa eta eszenografia indartsua uztartuko dituzte

ANTZERKIA • KAROLINA SUAREZ

Oihane Enbeitak, Andoni Gartziak eta Eneritz Zeberioi osatutako Ma Kolektiboaren dramaturgia proposamen berritzaileak kontzientzia anatomikoa du ardatz. Lua Kastore protagonistaren barne bidaia da ikuskizunaren oinarria, eta, horretarako, hitza, gorputza, soinua eta irudia uztartuko dituzte adierazpen bide moduan. Gainera, hainbat diziplina erabiliko dituzte.

Espresioen sinkronia honek zenbait geruzatan irudikatuko ditu pertsonaia nagusiaren gorputz-gatazka: kanpo eta barne ahotsen

Ma Kolektiboak Joseba Jaka Sorkuntza Beka irabazi zuen, iaz, 'Lua Kastore' proiektuagaz

tentsioak, nortasunen artekoak... Askotariko sinbolo-geruzetan arakatzea da kontua.

Horrela, *Lua Kastore* lanean erabiltzen dituzten adierazpen modu guztien artean, poetikotasunari ematen diote garrantzia, bereziki. Baita edozein keinu txikik sortu dezakeen zentzuari ere. Nortasun handiko atmosfera bat sortzeko helburua du lanak.

Ma Kolektiboaren proiektuak antzerki-sorkuntza sustatzea helburu duen Joseba Jaka Sorkuntza Beka irabazi zuen iaz. Urtebeteko lanaren emaitza da ikusiko dena.



Lua Kastore.

Sweet Margotek, Olatz Salvadorrek eta Gontzal Mendibilek kontzertuak eskainiko dituzte Iurretako Auzorik Auzo ekimenean

MUSIKA • A.M.
Hirugarren urtez, Iurretako herri-
guneetatik kanpo dauden auzo-
etara ekitaldi kulturalak eram-
ango ditu Auzorik Auzo programak.
Amezketara eta San Andres auzo-
etara kontzertuak egongo dira,
estreinakoz. Orozketan ohikoa
bilakatu da udaberriko kontzer-
tua. Martxoaren 23an hasiko da
Auzorik Auzo, Irati Bilbaok eta
Mikel Nuñezek osatzen duten
Sweet Margot taldearen kontzer-

**Amezketara eta San
Andresera lekualdatu
dituzte kontzertuetako bi;
bestea Orozketan izango da**

**Emanaldi guztiak
18:00etan hasiko dira,
eta doakoak izango dira**

tuagaz; Amezketan izango da
zuzeneko emanaldia. Apirilaren
6an Olatz Salvadorrek eskainiko
du kontzertua, Orozketan. Maia-
tzaren 4an, ostera, Gontzal Men-
dibil arituko da, San Andresen.

Kontzertuak, doan
Emanaldi guztiak 18:00etan hasi-
ko dira eta doakoak izango dira.
Horien ostean, luntxa egongo da
auzotarrentzat eta kontzertuak
ikustera doazenentzat.



Olatz Salvador.

Ostalaritza gida

anboto

Durango

PLATERUENA Kafe antzokia
Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300
www.plateruena.eus
Egunero zabalik. Menu bereziak,
egunerokoak, taldeentzakoak eta
ospakizunak.

Durango

KOBIKA JATETXEA
San Ignazio, 8 - DURANGO
Tel.: 946 810 003
Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.

Iurreta

GAUARGI
Dantzari, 4 behe - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak, tostadak eta
etxeko bizkotxo eta "Brownie"-ak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak
6€-tan. Egunero zabalik. Asteburuetan
rabak.

Durango

URRATS
Juan Antonio Abasolo kalea,3 - DURANGO
Tel.: 946 812 518
Gosariak, bokatak eta pintxoak. Bariku
eta zapatu gauetan hanburesak. Zapatu
eta domeketan babarrunak enkarguz.

Durango

GORA GORA
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO
Tel.: 946 811 384
Plater konbinatuak, hanburesak,
ogitartekoak eta kazolatxoak.

Abadiño

ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

Durango

MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrean kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alaia.

Durango

OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Eguneko menuak, bereziak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.
Egunero zabalik.

Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!

“Orain edozein lekutan entzuten dira swing doinuak, eta janzkera ere modan dago”

Plateruenean Elektroswing Gauda egingo dute, gaur, 22:00etan, Swingrowers, Koban eta Dr Malaka taldeekin

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Elektroswing festa egongo da gaur Plateruenean, Koban eta Swingrowers taldeekin. Palermotik (Italia) datoz bigarrenak. 2011tik munduan barrena erakusten dute euren jazz, hip hop, elektronika eta 'ijito-Swing' delakoa-ren nahasketa.

Zelako harrera eduki du diskoak?

Oso ona. *Outsidein* hirugarren lan honetan, gure soinuaren aukeretan sakondu gura genuen; elektroswing purua rock, reggae, hip hop, funk eta disko doinuekin nahastu dugu. Pozik gaude emaitzagaz. Ez genuen dantzarako abesti batzuk egitea gura soilik. Hitzak gehiago landu ditugu, adibidez. Munduko hainbat herrialdetan lortu ditugu entzuleak *Outsidein* diskoagaz, eta orain gure musika toki horietan erakutsi gura dugu. Maiatzean AE-Betara eta Kanadara goaz.

Atzo hasi zenuten 'Iberian Tour' delakoa.

Gure bigarren aldia izango da estatu espainiarrean, eta etxean bezala egon izan gara. Siziliarrak eta



Loredana Grimaudo, Roberto Costa, Alessio Costagliola eta Ciro Pusateri dira Swingrowers.

espainiarrak nahiko antzerakoak dira kulturalki. Festibaletan publiko anitza da, eta kontzertuek ez dute harrera berdina edukitzen. Kontzertu sorta honek erakutsiko digu zenbat zale ditugun hemen. Elektroswing jaialdi bat da, eta, be-

raz, badakigu jendea gure musika entzutera etorriko dela. Oso harro gaude zentzu horretan.

Nolakoak dira zuen kontzertuak?

Mendekotasuna sortzen dute.

Swing doinuak modan daudela dirudi.

Ados zaudete?

Bai, guztiz. Edozein lekutan entzuten dira swing doinuak orain; janzkera ere modan dago.

Kobanegaz joko duzue. Ezagutzen dituzue?

Itzelak dira, eurak ezagutzeko irrikan gaude!

Gai librea

Ihintza
Orbegozo Igartua
Plateruena



Betikotasunean ahaztuak

Nik ere izan nuen abesti gustukoena grabatzeko ohitura hori; eta lagunarena, hari bidaltzeko; argazki pare bat etxekoei, zeinen gustura nengoen erakusteko, eta nola ez, taldearen abesti mitikoena, sareetan jartzeko. Baina ongi gogoan dut BEC-en Rise Against eta Berri Txarrakekin batera Refused taldea izango zela iragartzean mugikorrik gabe joatea erabaki nuela, musikalki nigan eragin handia izan duen taldea lehenengo aldiz zuzenean ikusiko bainuen; eta pogoetan sartuko banintzen, ez nuen enbarazu egingo zidan ezer nahi. Soilik garagardo batzuk hartzeko dirua eta kotxeko giltza poltsikoan hartuta joan eta izugarritzko askatasuna sentitu nuen, noren gustuko abestia zetorren edo argazkia ateratzeko momentu egokia zen adi egon beharrik izan gabe –are gehiago Berri Txarrakek *Denak ez du balio* jo eta Tim McIlarth ateratzean guztiek ezinbestean grabatu behar izan zutenean. Ordutik, argazki edo bideoen bat egiten badut ere, eta tira, baita batzuetan sareetan ipini, nire buruari zin egin nion handik aurrera kontzertuaz momentuan eta zuzenean gozatuko nuela, eta hala egiten dut, saltoka, abestuz, dantza eginez, eta batzuetan –barka nazatela- zirraraz albokoari traba pixka bat eginez ere.

Kontzertuak pantaila bitartez ikustera ohituak gaude, betirako oroitzapen moduan gordetzekotan, baina mugikorretako argazkien albumetan atzean gelditzen joaten dira, betikotasunean ahaztuak izan arte. Gorde ezazue mugikorra kontzertu batean zuek ere, eta konturatuko zarete, zuzeneko bat pantailan ikusteko, hobe dela etxean ikustea.



Artelanetako bat.

'At Ente' erakusketa kolektiboa inauguratuko dute Durangoko museoan

Sei artista gaztek erakusketa honetarako sortutako eskulturak, instalazioak, pinturak eta testuak biltzen ditu

ARTEA • A.M.

Barikuan, *At Ente* erakusketa kolektiboa inauguratuko dute Durangoko Arte eta Historia Museoan. Iranzu Antona, Mariana Unda, Eztizen La Cruz, Leire Muñoz, Clara Elizondo eta Andere Etxegaraireren lanekin —eskulturak, pinturak, instalazioak eta testuak— dago osatuta erakusketa.

Sortze prozesu berezia

Virginia Woolf gogora ekarri, eta logela propio bat eman diete sortzaileei erakusketa hau aurrera eraman ahal izateko. Izan ere, seiek ez zuten elkar ezagutzen lan honen aurretik. Horrela, sorkuntza prozesu berezi horren emaitza da *At Ente*. Apirilaren 28ra arte egongo da ikusgai erakusketa.



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RP5: 145-13



ALDEKOA-OTALORA iturgintza
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com - 692 859 779
Zubiaurre, 8 IURRETA - 946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO - 944 071 791



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com



Iñaki Alonso Rodríguez
Alaves B taldeko
entrenatzailea
Durango | 1968

“Talde baten barruan hari mehe batek banatzen ditu sarritan konfiantza eta mesfidantza”

Iñaki Alonsok Alaves B taldearen ardura hartu berri du eta Bigarren B Mailara igotzen saiatuko da. Ez litzateke lehenengo aldia izango. Orain 13 urte, Durangoko Kulturalagaz Hirugarren Mailatik igotzea lortu zuen

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Real Unionegaz eta Murtziagaz Bigarren Mailara igo izana eta talde gipuzkoarragaz Real Madril Errege Kopatik kanporatu izana dira Iñaki Alonsoren lorpenik sonatuenak entrenatzaile moduan. Kroaziako talde bat ere entrenatu du. Orain, Alaves B taldearen gidaritza hartu du.

Joan zen asteburuan, ez zenuen amestutako estreinaldia izan: 2-0 galdu zenuen sailkapeneko behealdean dabilen Deustoren kontra. Filialei kostatu egiten zaie horrelako taldeen kontra jokatzeko: zela txikia, joko zuzena... Lehen zati ona jokatu genuen, baina bigarren gola jasotzean, filial bati ikusi ohi zaizkion gabeziak azaleratu ziren: presa, joko indibiduala...

Portugalete eta Sestao, sailkapeneko lehenengo biak, beste liga batean dabilta, baina seiko taldetxo bat dago puntu biren barruan, Alaves B barne. Hori da zuen borroka? Igoera faserako, postu bi daude sei talde horien artean. Bai, horixe da gure borroka, eta hurrengo hiru partiduak ez dira nolanahikoak; taldetxo horretan dagoen Somorrostro, Sestao eta Portugalete.

“

Kulturalaren moduko talde bat bere filosofiagaz leiala denean, zoriontzea besterik ez da geratzen”

—

Partidu exigenteak izango dira guretzat, baina ilusioz aurre egingo diegu.

Arrakasta izan duzu igoerak lortzen. Real Unionegaz eta Murtziagaz lortutakoak aipagarriak dira. Zelan gogoratzen dituzu?

Talde bietako helburuak ez ziren berdinak. Real Unionegaz ez ginen igotzeko faboritoak, eta, hala ere, lortu egin genuen. Taldearen ilusioa, motibazioa eta gogo aldartea ikaragarriak izan ziren. Bizipen zoragarria izan zen. Murtziarentzat obligazioa zen mailaz igotzea. Klubak hartzekodunen konkurtsoan sartuta zegoen eta derrigorrez igo behar zen. Beharbada, bere sasoian ez zen lorpen hori hainbeste baloratuko, baina urte batzuk joan direnean gehiago akordatzeko dira, oso egoera zailetan izan zelako.

Iruditzen zait, batzuetan, estamentuetan banatzen direla entrenatzaileak. "Honek taldeak igotzeko balio du, baina ez klub handi bat gidatzeko", eta antzerakoak entzuten dira. Komentario horiek mingarriak dira?

Tira, iritziak baino ez dira. Entrenatzaile bakoitzak badaki non dauden bere mugak eta bere joko eredua zein motatako taldeetan txertatu daitekeen ondoen. Esaterako, Real Madril entrenatzeko, ez du edonork balio. Beharbada, orain Zidanen moduko bat beharko da, errespetua sortzen duen pertsona delako. **Alderdi psikologikoa ala egunean eguneko lana entrenamenduetan. Bietako zein da inportanteena?**

Gaur egungo futboleko, biak dira garrantzitsuak. Arlo taktikoan ez dago alde handirik taldeen artean eta denak oso prestatuta daude. Taldearen kudeaketa ere inportantea da, jokalariekin zintzo jokatzeko eta koherentzia bat mantentzea. Talde baten barruan, hari mehe batek banatzen ditu sarritan konfiantza eta mesfidantza.

Egun batetik bestera gertatu daiteke aldaketa?

Batzuetan, bai. Emaitzak aldekoak direnean taldea ur aparretan dabil, erraz. Baina, bolada txarrean, pasioa, ilusioa eta konfiantza transmititu behar dituzu. Futbola astero azterketa duen ogibide baxarra da.

2017an, Kroaziako Lehenengo Mailan zebilen Rudes taldea entrenatu zenuen, zazpi bat hilabetez. Zelako esperientzia izan zen?

Sasoi hartan, elkarregaz lan egiteko hitzarmena zuten Alaves eta Rudes taldeek. Nire ingelesa eskasa zen eta, gainera, ezin izan nuen nire talde tekniko propioa eraman. Baina ezin nion horrelako aukera bati ezetz esan.

“

Futbolari kroaziarrek talentu handikoak eta oso lehiakorak dira, baina baita berekoak ere”

—

Herrialde eta kultura berria ez ezik, futbola ulertzeko modu berri bat ere aurkitu zenuen?

Futbolari kroaziarrek talentu handikoak eta oso lehiakorak dira, baina baita berekoak ere. Badakite euren liga Europako beste indartsuago batera joateko eskaparatea izan daitekeela eta argazkian irte ten saiatzen dira. Lanerako duten diziplina ere azpimarratu gura nuke. Ikaragarri langileak dira. Ez da kasualitatea edozein kiroletan onak izatea, herrialde txikia diren arren. Guk asteko egun bitan saio hirukoitzak egiten genituen. Niretzat oso esperientzia positiboa izan zen.

2004-2005 denboraldian Durangoko Kulturala entrenatu zenuen. Gainera, urte hartan Bigarren B Mailara igo zineten. Aurten ere maila horretan dabil, azken postuan. Jarraitzen dituzu taldearen ibilerak?

Kulturalako bazkidea naiz 30 bat urtean, eta nire semeak klubean dabilta. Talde nagusiaren partiduren bat ere ikusi dut. Kulturalaren moduko talde bat bere filosofiagaz leiala denean, zorionak ematea besterik ez da geratzen. Ez dira zoratu, eta emaitzak gorabehera, entrenatzailea azkenera arte mantenduko dute. Horrek asko esan gura du. **Mendeurreneko ekimenetan parte hartuko duzu?** Tira, bere sasoian zerbait komentatu zidaten, baina ezin dut ezer aurreratu. Lagundu ahal dudanean denean pozik lagunduko dut.

Presio handikoa barik, zaleen aurrean gozatzeko partidua izango du gaur Aitor Elordik, finalerako sailkatuta dagoelako

Bere ibilbide profesionaleko lehenengo finala jokatu aurretik, finalerdietako ligaxkako azken neurketa jokatu du Mallabiko pilotalekuan



Orain arte finalerdietako ligaxkan jokaturako partidua biak irabazi ditu.

PILOTA • JOSEBA DERTEANO
Urte bi joan dira Aitor Elordik (Mallabia, 1996) profesionaletan debutatu zuenetik. Harrezkero, denetik bizi izan du: debut urtean promozio mailako lau t'erdiko finalerdira heltzea bezain une ede-

rrak eta joko puntua hartu ezinda ibili den etapak. Orain, inoizko unerik gozoenean dago. Datorren astean 23 urte egingo dituen mallabitarra Promozio Mailako binakako txapelketako finalera sailkatu da, Oier Etxebarriagaz batera.

"Gozatzera irtengo gara. Finalerdietako partidua bat etxean jokatzeko berezia da beti"

Profesionaletako bere lehenengo txapela eskuratzen saiatuko da aste bi barru, Labrit pilotalekuan jokatu den finalean.

Finalerdietako ligaxkan maila bikaina eskaini dute Elordik eta Etxebarriak. Partidu bietan faborito ziren bikote biri irabazi diete: Agirre-Salaverri (22-18) eta Peio Etxeberria-Garmendia (22-21) bikoteei, hain zuzen. Azken partidua honetan azpimarratzekoa da 21nako berdinketan Elordiok sartu zuen gantxoa, pilotari ausarta dela erakutsiz.

"Lanean topera jarraitu dut konfiantza puntu hori lortzeko, eta sasoi onean heldu naizela uste dut"

Orain arte egindako bidea errepasatu du Elordik: "Txapelketara oso momentu onean heldu nintzen. Gero, beheralditxo bat izan nuen eta partidua batzuetan ez nintzen hain ondo ibili. Baina lanean topera jarraitu dut konfiantza puntu hori hartzeko, eta finalerdietara sasoi onean heldu naizela uste dut".

Gaur partidua Mallabian
Ligaxkako azken partidua Mallabian jokatu du Elordik, etxekoen aurrean. Gaur iluntzean izango da, ETB 1eko kamerak bertan direla. "Ez dugu ezer jokoan eta gozatzera irtengo gara. Finalerdietako partidua bat etxean jokatzeko berezia da beti", onartu du.

Bere bikotekidea Alvaro Untoria izango da. Oier Etxeberriak eskue-

tatik justu amaitu zuen azken partidua eta gurago izan dute ez arriskatu. Gaur beste partidua ere egongo da ikusgai Mallabian: Ezkurdiak eta Erostarbek Jakaren eta Galarzaren kontra jokatu dute.

"Pasatutako uneak pasatuta, lorpenak gehiago gozatzeko ditut; finala heltzeko gogoz nago"

Lanaren ondorioa
Profesionaletan ez dago txantxarrik. Onenen artean muturra erakustea edo tokia egitea gatxa da sarritan. Elordik ondo daki hori eta horrelaxe gogoratu du: "Debutatu ostean, dezente kostatu zitzaidan neure lekua hartzea. Pasatutako uneak pasatuta, orain lorpenak gehiago gozatzeko ditut eta, egia esanda, finala heltzeko gogoz nago".

Iazko abenduan, kontratua berritu zion Aspe enpresak. Gutxienez, urtebete gehiago egongo da profesionaletan. Azkenaldian ondo zebilela ikusita, "beste urte bi" luzatuko zioten "esperantza" zuen mallabitarrek, baina, azkenean, ez zen horrela izan. Kontratu luzeekin pilotariak "erlaxatu" egiten direla esan zioten, eta gurago dutela apurka joatea. "Edozelan ere, bide onetik noala eta horrela jarraitzeko esan zidaten. Pozik nago urtebete gehiagotan nigaz jarraitu gura dutelako. Orain, urtean zehar, badaukat asti apur bat entrenamenduak eta abar ondo planteatzeko. Urtea ondo hasi dut eta ea amaiera oraindino hobea den", adierazi du.

Asteko kirolaria



SONIA OCEJA SALAZAR

Durango, atletismoa

Sonia Ocejá ez da atleta konfor-
maerraza. Ourensen hiru domina
irabazita oso pozik dago, baina
proba batzuetan bererik eman

"Jauzi hirukoitzean nire markarik onena egin dut, baina badakit hobeto egin dezakedana"

Espainiako Atletismoko Master Txapelketan hiru domina irabazi ditu Sonia Ocejá

ez izanaren penatxoa ere badu. Beharbada izaera exigente hori da, urtea joan eta urtea etorri, dominak pilatzera eramane duena.

Jauzi hirukoitzean urrea irabazi duzu. Espero zenuen?

Domina bat espero nuen, baina ez urrezkoa. Orain arteko nire markarik onena egin nuen. 8,45 metroko saltoa eginda joan nintzen eta 8,86 metrokoa egin nuen

txapelketan. Egia esanda, bedertzi metrora heltzea espero nuen. Ea hurrengo batean lortzen dudan!

Pentatloian brontzea irabazi duzu.
Bost orduan bost proba egin behar dira: 60 metroko hesidun proba, altuera-jauzia, pisu jaurtiketa, luzera-jauzia eta 800 metroko proba. Nire ibilbideko lehenengo pentatloia izan zen. Orain arte, lasterketak eta luzera-jauzia egin izan ditut, batez ere. Iaz hasi nintzen pentatloian pentsatzen. Al-
tuera-jauzia eta hesidun proba urte askoan egin barik nengoen. Euskadiko Txapelketan pentatloiko proba batzuk lehiatu nituen. Neure burua ondo ikusi eta Espainiakoan parte hartzerantz animatu nintzen.

Estreinaldian domina irabazi duzu. Ezin daiteke gehiago eskatu!
Oso pozik nago, baina badakit hobeto egin dezakedana. Luzera-jauzian eta hesien proban ez nuen

neurerik eman. Pisu jaurtiketan 10 metrora heldu naiteke eta ez nintzen heldu. Altuera-jauzian, ostera, ondo ibili nintzen.

Hirugarren domina pisu jaurtiketan heldu zen. Pozik egindako lanagaz?
9,86 metrotara bota nuen pisua. Pozik nago, baina, esandako moduan, hamar metrora heldu gura dut. Entrenamenduetan heltzen naiz, baina txapelketetan, nerbioak direla-eta, kosta egiten da.

Durango Kirol Taldeko beste kirolari batzuk ere nabarmendu ziren.
Bai. Bilbon bizi den Marian Canton-ek urrezko domina irabazi zuen bere mailako pentatloian, eta Africa Rodríguez mungiarrek beste hainbeste egin zuen 3.000 metroko martxa-proban.

Mailako talderik gazteenagaz esperantzari eusten dio Kulturalak

Denboraldiko laugarren garaipena jardunaldiko talderik gazteenagaz lortu zuen



Ezkerrean, Iker Unzueta, joan zen asteko Kulturalako jokalaririk gazteena.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen astean, denboraldiko laugarren garaipena lortu zuen Durangoko Kulturalak, Langreoren aurka: 1-0. Iker Aramburuk sartu zuen partiduko gol bakarra. Gazte-tasunean oinarritutako garaipena izan zen. Jardunaldiko partidu denak kontuan hartuta, hamai-kakorik gazteena zelairatu zuen Durangoko taldeak: 24 urte, batez beste. Estatistikak ematen dituen

Batez beste, 24 urte zituen taldea zelairatu zuen Durangoko Kulturalak

Sailkapeneko azken tokian jarraitzen du eta hamaika puntura du salbazioa

Vintage Stats portalaren arabera, Iker Unzueta izan zen taldeko gazteena, 20 urte gaz, eta Ekaitz Molina nagusia, 28 urte gaz.

Garaipenak esperantzari eusteko balio du, baina Kulturalak mailako azken tokian jarraitzen du eta 11 puntura du salbazioa. Asteburu honetan Sporting B taldearen kontra jokatuko du, etxetik kanpora.

Jokaldia

Alfontso Arroio
Monasterio
Txirrindularitza



Estasian

Urte sasoi honetan horrela sentitzen naiz; udaberria ate joka dugula, neguaren hon-darreko enbatan. Martxoan hasi eta maiatza amaitu artean txirrindularitzaren esentzia puri-purian egoten dela uste dut. Muinoak, sterratoak, har-bideak, astebeteko lasterketak, klasikoak...

Erabat txundituta naukate garai honetako lasterketek. Sortzen didaten zirrara deskriba ezina da. Historia luzea daukate gehienek, zirt edo zart egitekoak dira, horrek sortzen duen erakargarritasunarekin. Ez dago espekulatze betarik. Egun osoan egurrean, sama luze-luze eginda eta norberak babak eltzetik atera beharra. Helmugatik urrun oilarrak mokoka ikusteko aukera gutxitan izaten da.

Orain da klasikoaren sasoi, eta zer esango dizuet... Hertzainak "Zoratzen naizela" abestia datorkit gogora. Udaberriko loreen distira lez, horrela agertzen da ziklismoa sasoi honetan. Harelbeke, Strade Bianche, Flandriako Tourra, Paris-Roubaix, Tro-Bro Leon, Liege-Bastogne-Liege, Fleche-Wallone, Brabanteko Gezia... Amaitzeko, oster, Italiako Giroa. Nire lasterketa kuttuna, Tourraren handikerietatik kanpo, zaleengana gehien heltzen den itzuli handia. Pasioa, historia, kaos ordenatua; uztaleko zirku mediatikotik eta futbolaziotik kanpo. Dolomitak, Apeninoak, Toscanako muinoak, Abruzzoetako herri ezezagun dotoreak, hegoaldeko bizitasuna... Ezin hobeto dator-kio Giroari bere abizena: Amore Infinito. Hiru hilabete hauek gozamen hutsa izango dira niretzat. Orain, abesten jarraituko dut, "zoratzen ari naizela, hasi naizela, zukanako amodioaren berri ematerakoan..."

TXIRRINDULARITZA • M. ZUAZUBISKAR

Denboraldia ezin hobeto hasi dute CAF Turnkey Enginnerig taldeko txirrindulariek. Domekan Zaldibarrren jokatu zen lasterketan, Amaia Lartitegik eta Julia Sanchezek lehengo eta bigarren postua lortu zuten jubenil mailan, hurrenez hurren. Kadete mailako txirrindulariek, Iurreta Furesa taldekoek, oster, zorte gutxiago izan zuten. Jimena de Roari, garaipena lortzeko faboritoetako bati, helmugatik 400 metrora gupila zulatu zitzaion eta ezin izan zen garaipenarengatik borrokatu. "Kadeteak ondo ibili ziren arren, zortea ez zuten aldeko izan", adierazi du Agustin Ruizek.

Hasi berri dagoen denboraldi honetan, Ruiz jubenilen taldeaz arduratuko da eta Joseba Gorosti-

Denboraldiari garaipen bategaz eman dio hasiera CAF Turnkey Enginnering taldeak

Joan zen zapatuan aurkeztu zuten taldea, lurretan; 20 txirrindularik osatzen dute

za kadeteen taldeaz. Guztira, 20 txirrindularik osatuko dituzte bi taldeak. Ruizen hitzetan, talde indartsuak dituzte eta maila bietan garaipen garrantzitsuak lortu ditzaketela uste du. Hala ere, aurtengo denboraldian taldeko zenbait txirrindulari Euskadiko eta Espainiako selekzioeko parte izatea amesten du. "Selekzioetan sartzeak etorkizuna erraztuko die txirrindulariei, bai kirolean, bai ikasketeetan", amaitu du Ruizek.



20 txirrindularik osatzen dituzte talde biak. IÑAKI GONZALEZ DE HEREDIA.

A. Urreta podólogo

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

katerin ardoak

iñaki uribe

25^{urte} Saltsan


Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Arrike Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

//AUKERA
ABADIÑO. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, despentsa, egongela handia eta ganbara. **149.000€.**
OCASIÓN. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. **135.000 €**
SAN FAUSTO. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. **85.000€**
DURANGO. 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela, berogailua, igogailua. **130.000€**neg.
//ETXEBIZITZAK SALGAI
SAN IGNACIO. 100m2 etxebizitza, 3 logela, 2 bainugela, horma-armairuak, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Garajea. Dena kanpora begira. Eguzkitsua. Alokairuan, erosteko aukerarekin.
BIDEBARRIETA. 3 logela, bainugela, sukalde handia, terraza, igogailua eta ikuspegi politak. **120.000 €.**
ERRETENTXU. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, despentsa, egongela, terraza. Garajea aukeran. **198.000 €**
PLATERUEN PLAZA. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, ganbara, garagea aukeran. **225.000 €**
ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza. Igogailua. **124.000€**
MADALENA. Duplexa egiteko aukera. Azken solairua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela eta garajea. ORAIN: **256.000€**
ANBOTO. Azken solairua, 3 logela, bainugela, egongela, balkoia. Dena hegoaldera begira. **185.000€**
ABADIÑO. Familia bakarreko baserria 484 m2 lurzoruan. Etxebizitza eraikitzeko 1000m2ko lurzoruau aukeran
ANDRA MARI. 100m2. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela handia, garajea aukeran. **229.000 €**
MENDIZABAL. 2 logela, bainugela, sukaldea, balkoia, egongela handia eta ganbara. **186.000€**
TABIRA. 3 logela, bainugela, sukaldea, despentsa, egongela, terraza, ganbara, eguzkitsua. Dena kanpora begira. **190.000€**
ZABALE (Ask. Etorbidea). 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. **170.000€**
ERROTARITXUENA. Apartamentua. Dena kanpora begira. Terraza. Garaje itxia. **220.000€.**
MENDIZABAL (ALLUIZ). 126m. 4 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, esekitokia, ganbara eta garaje itxia. **295.000 €.**
IURRETA. 111m2. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela handia, 12m2-ko terraza. Trastelekua eta garajea.**276.000 €**
ESTREINATZEKO BERRIAK. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela, terraza, ganbara, garajea aukeran. **153.000 €**
MATIENA. LAUBIDETA. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, 2 terraza, ikuspegiak, eguzkitsua.
BERRIZ. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela, terraza. **65.000€**
ZALDIBAR. 2 eta 3 logelakoa. Eguzkitsua. Dena kanpora begira. Berriztatua. **99.000€**
F.J.ZUMARRAGA. 130m. 3 logela (printzipala bikoitza.) 2 bainugela, sukalde-jangela, egongela, 2 terraza, ganbara. Garaje itxia 2 kotxentzat eta trastelekua (aukeran). **285.000€**
DURANGO. Eraikitzeko baimena duen 650m2-ko lurzorua.
//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN
ARTEKALE. 100m2. **83.000 €**
DURANGO. Taberna martxan. 95 m2. **138.000€**
ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko.24-35 m2. EKONOMIKOA.
F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m2. SALMENTA **150.000€**(Negoziagarria)
IBAIZABAL. 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIRUA. **500 €.**
ASK. ETORBIDEA. Garaje itxia. **18.800 €**



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

//ETXEBIZITZA ALOKAGAI
ABADIÑON. 3 logelako, duplex handia. Garajea eta trastelekua barne. 750.-€
//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO. Eraikin berria. 3 logela, azken etxebizitza salgai. **200.000.-€.**
DURANGO. Jose Miel Barandiaran. Pisu ederra, 3 logela, komun bi, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua. Aukera ederra Durango erdian bizitzeko.
DURANGO. San Ignazio Auzunea. Guztiz berriztatzeo. Pisu ederra. 3 logela, komun bi, sukaldea, eta egongela balkoiarekin.
MAÑARIA. 3 logelako pisua, komuna, sukaldea, despentsa, egongela eta ganbara. **80.000.-€.** Bizitzeko moduan.
DURANGO. Komentukale. Pisu ederra, 3 logelakoa, komun bat, sukaldea, egongela eta ganbara. Bista ederrak.
BERRIZ. 3 logelako pisua. Komuna eta egongela Ganbara ere badu. Oso eguzkitzua eta merkea.
DURANGO. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra 90 m2 ganbararekin.
IURRETA. Maspe kalean. 3 logelako pisu argitzua. Egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.
DURANGO. Hegoalde kalean, izugarritzko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobe.
LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.
ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, espentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.
ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.
//LURSAILAK SALGAI
ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.
BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.
IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.
ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.
//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
ABADIÑO. Bifamiliarra salgai. 4 Logela, 3 komun, sukaldea, egongela, garajea. Oso polita.
ATXONDO. Marzana. Izugarritzko txaleta salgai Ikuspegi bikaina, berri berria!!!
MAÑARIA. Izugarritzko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berriztatzeo, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€
ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.
BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobe, Anbotora begira.
MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatzeo. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeo.
BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan
//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350€tik hasita.
//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai. 25.000.-€ tik aurrera.
//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.
//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA. 460 m2-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia.



Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



DURANGO

3 logela

86 m²

ANDRA MARI: Eraikin enblematiko baten etxebizitza eskusiboa. Egoera onean. Kokapen bikaina. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta 2 bainugela. Gaueko tarifa.
285.000€



DURANGO

3 logela

2 komun

83 m²

SAN IGNACIO: 83 m2+balkoia. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea jarrita eta egongela. Garajea eta trastelekua. Komunitateko igerilekua aukeran.
258.000€



DURANGO

3 logela

71 m²

TABIRA: 71m2, eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta balkoia.
180.000€ / Neg



DURANGO

3 logela

80,7 m²

ASKATASUN ETORBIDEA. 80,7 m2, 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta igogailua. Dena hegoaldera begira.
180.000€



DURANGO

3 logela

70 m²

ANTSO ESTEGIZ: 70m2. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela.
160.000€



NOJA

3 logela

NOJA: 3 logela, egongela terraza eguzkitsuarekin, sukaldea jarrita esekitokiarekin, bainugela eta garajea. Berogailua. Guztiz hornituta.
120.000€ / NEG.



AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//DURANGO
ALLUITZ KALEA 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. **295.000 € / E.E.Z= E**
ANBROSIO MEABE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, ganbara eta garaje itxia. **265.000€ / E.E.Z= E**
ANDRA MARI 5 logela, egongela, sukaldea, egongela eta igogailua. LEHEN 250.000€ **ORAIN230.000 € / E.E.Z= F**
ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€ / E.E.Z= F**
ANTSO ESTEGIZ 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€ / E.E.Z= E**
ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta igogailua. LEHEN 205.000 € **ORAIN 198.000€ / E.E.Z= E**
ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€ / E.E.Z= E** Garaje itxia aukeran
EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. LEHEN 321.500 € **ORAIN 300.000€ / E.E.Z= F**
KURUTZIAGA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. **99.000 € / E.E.Z= Bidean**
MURUETA TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua.. **245.000 € / E.E.Z= E** Garajea eta trastelekua aukeran.
SASIKOA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia igogailua, garajea eta trastelekua. **210.000€ / E.E.Z= E**
//LURZORU ERAIKIGARRIA
SANTIKURUTZ KALEA Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600m2ko lur-sorua. **640.000€**
//ABADIÑO
ARLOZABAL2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.Z= Bidean**
ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. **309.000 € / E.E.Z= F**
//ATXONDO
ARRAZOLA ERREPIDEA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€ / E.E.E= Bidean**
//BERRIZ
ANDIKONA AUZOA Berreraikitzeo baserria. **460.000€**
ERROTATXO KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. LEHEN 95.000€ **ORAIN 85.000€ / E.E.Z= E**
//ELORRIO
ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. LEHEN 189.000 € **ORAIN 169.000 € / E.E.Z= E** Garaje itxia aukeran.
//IURRETA
FAUSTE Baserria lurzoruagaz, **220.000€/E.E.Z=G**
//MATIENA
TXINURRISOLO 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€ / E.E.Z= F**
//MAÑARIA
EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara. eta txokoa **150.000€ / E.E.E= Bidean** Txokoa aukeran
//ZALDIBAR
ZALDUARAN KALEA Banakako etxebizitza. 373m2 inguru hiru solairutan banatuta. 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, garajea eta txokoa. 669m2 inguruko lur sailarekin. **460.000€ / E.E.Z= E**
//ZORNOTZA
SAN PEDRO KALEA 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela, ganbara eta garajea. **170.000€ / E.E.Z= Bidean**
//BERRIAK
IURRETA - SANTA MAÑA 3 logela, sukaldea, egongela bainugela trastelekua eta lursailarekin **125.000€/ E.E.Z= G**



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Abadiño. Muntzaratz auzoan, 90 metro karratuko etxebizitza trastelekuarekin salgai Artolazabal kalean, 3 logelakoa. Tel.: 665733151

Elorrio. 70 metro koadroko etxebizitza trastelekuarekin salgai Elorrioko Argiñeta Etorbidea 20 zenbakian. 3 logeladuna. Beheko solairua. Eraberritze-obra behar du. Tel.: 631-12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Abadiño. Abadiñon Mendiola auzoan, lokal bat alokatzen da, orain TXOKO moduan dago, baina beste erabilera batzuetarako ere erabili liteke, adibidez enpresa batzarretarako, biltegi, ostatu eta abar. Umeek jolasteko leku handia dauka eta aparkaleku ederra. Informazio gehiago nahi baduzu deitu 600464411 telefonora. etxetxu53@gmail.com

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Zaintzaile moduan lan bila. Zaintzaile bezala lan bila nabil. Adineko pertsonak zein haurrak zaintzen esperientzia daukat. Orduka edo barneko langile moduan lan egiteko prestutasuna daukat. Berehalako disponibilitatea. Interesa duenak ondorengo telefonora deitu nazala, gaztelaniaz mesedez: 631 925 525 Eskerrik asko.

Esperientziadun umezaina. Kaixo. Irantzu naiz eta Durangon bizi naiz. Urte askotako esperientzia daukat umeak zaintzen eta begirale moduan. Umezain lan bila nabil. Ahal izanez gero ordu solteak edo lanaldi erdira. Tel.: 644411174

IRAKASKUNTZA

Zientziako klase partikularrak. DBH (3. eta 4. mailan) eta Batxilergoan laguntza klaseak ematen ditut: matematika, fisika/kimika eta teknologia ikasgaietan. 5 urtez irakaskuntza

formalean ibili naiz eta zientzietako ikasgaietan daukat formaziorik handiena. Interesik badaukazue jarri nirekin harremanetan: 669 69 24 30 (Ane)

LAN ESKAINTZAK

PLANTXA ORDUKA EGITEN DUT. Esperientzia handiko emakumea, orduka plantxa zein etxeko lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan. Tel.: 645 70 6839

PERTSONAK ZAINDU

Adinekoen zaintza lanak. Adineko pertsonen zaintzan lan bila nabil. Eskarmentuarekin. 21 urte ditut. (gaztelania) jorgebeloorin@gmail.com

Etxeko lanak egiteko, edo adineko pertsonak zein umeak zaintzeko lan bila nabil. Kaixo, etxeko lanak egiten, zein adineko edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Neska latinoamerikarra naiz, arduratsua, tratu onekoa. Jendearekiko harremana gustatzen zait. Edozein inguru zein pertsonetara egokitzeko gaitasuna daukat eta azkar ikasten dut. Barneko langile moduan

lan egiteko prest nago, adineko pertsonak edo umeak zaintzeko edota etxekola lanak eta janaria prestatzeko ere. Berehalako prestutasuna daukat. Bizkaia edota Gipuzkoan. Telefonoz edota whatsapez kontaktatu, gaztelaniaz mesedez. Tel.: 644930679

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuek deitu edo Whatsapp-a bidali 602895018 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile gisa lan bila. Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa lisatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin. Tel.: 644558390

Barneko langilea lan bila. Emakume arduratsua lan bila. Barneko

zein kanpoko langile gisa adineko pertsonak zaintzen edo haurren zaintzan lan egingo nuke. Sukaldean ere aritu naiteke. Berehala hasteko moduan. Tel.: 632705225

Erreferentzia onekin lan bila nabil. Adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Garbiketa orduka edota lanaldi osoan. Tel.: 602895018

Lan bila. Adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko eta garbiketa lanetan esperientzia duen emakumea lan bila. Erreferentzia onak ditut. Orduka zein lanaldi osoan. Tel.: 631585845

Bi ume zaintzeko pertsona euskalduna behar dugu. Durangon 8 eta 10 urteko bi ume zaintzeko pertsona euskaldun bat behar dugu. Arratsaldeetan martxoaren 20tik maiatzaren 10era bitartean (Aste Santuan ez). Tel.: 649563492



KAULDI ODRIOSOLA
ASTE HONETAN
MIKEL URDANGARIN


DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



ttap
Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:
ttap.eus



Botikak	
BARIKUA, 15 · 09:00-09:00	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO	GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	ASTELEHENA 18 · 09:00-09:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
ZAPATUA, 16 · 09:00-09:00	GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO	09:00-22:00
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
09:00-13:30	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurreondo 22. - DURANGO	MARTITZENA, 19 · 09:00-09:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	09:00-22:00
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	EGUAZTENA, 20 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 21 · 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
09:00-22:00	GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 17 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AKARTEKO EPEA



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.



Ametzek eta **Sugarrek** 9 urte ein ebiezan martxoaren 12an. Zorionak etxe kuon partez eta mosu potolo bana. Jarraitu holan mutilak!



Zorionak, **Aiala**, guraso eta aiton-amonen partez. Muxu handi-handi bat.



Zorionak, **Arantza** eta **Martin!** Ardoa bezela, zuek beti hobera. Muxu potolo bana munduko familia desberdinen partetik!



Zorionak, **Haizea!** Ondo pasa domekan! Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez.



Zorionak, **Pedro**, familia guztia-ren partez 89. urtebetetzean. Musu handi bat.




Zorionak, **Peio!** Egun polita pasa familia guztiaren ondoan. Segi beti bezain alai eta zoriontsu. Muxu asko.



Abadiñoko **Malen** Etxegaraik 6 urte betetzen ditu gaur. Zorionak familia guztiaren partez! Mosu potolo bat!



Elorrio institutuan Palermo eta Peineko ikasleak elkartrukean jaso ditugu. Martxoaren 11tik 19ra gure artean egongo dira. Gure kultura, hizkuntza eta txokoak ezagutzen dabilta. Eguenean Idoia Buruaga alkateak ongi etorria egin zien. Pozik daude gure artean familiekin egindako harrerarekin.



Berba hauen bidez omenaldi xumea egin nahi diogu Rosiri. San Migeleko Rosi pertsona zoragarria izan zen, beti mundu guztiari laguntzeko prest. Faltan botako zaitugu auzoan.

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 25° / 4° ☀️

DOMEKA 🌡️ 10° / 6° ☁️

ASTELEHENA 🌡️ 10° / 4° ☁️

MARTITZENA 🌡️ 9° / 4° ☁️

EGUAZTENA 🌡️ 9° / 4° ☁️

EGUENA 🌡️ 15° / 1° ☀️



Extraños en el paraíso
La mirada de 42 creadores extranjeros sobre el País Vasco desde la modernidad

AURKEZPENA

21 · 19:00
martxo · osteguna

Durango (Artekalea, 23)
HITZ liburutegia

Esku hartuko du:
José Julián Bakedano

hitz
liburutegia

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

publizitatea@anboto.org
94 621 79 02

anboto
komunikabideak

CERAMICAS

MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION

MACOBER

Chimeneas

Cerámicas MACOBER

ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

“Momentu txarretan musikan murgildu naiz beti; musika irtenbidea izan dut”

Musika gauzak aldatzeko tresna garrantzitsua izan daitekeela uste du Azkaratek

Amaiur Azkarate Palacios

- Durangoko Abesti Feministen Lehiaketan saritua

Berba bitan

- **Abesti bat?**
Salvadorren heriotza
- **Abeslari bat?**
Eñaut Elorrieta
- **Joan zaren azken kontzertua?**
Matilda Bandak eskainitako bat
- **Mania bat?**
Oso superstiziosoa naiz

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Gizarteratze esparruan lan egiten du Amaiur Azkaratek (Durango, 1996), eta musika eta arte eszenikoak maite ditu. Durangoko Abesti Feministen Lehiaketan lehenengoz aurkeztu da eta bertsiorik onenaren saria lortu du, Pasi3n Vegaren 'María se bebe las calles' euskaratuta.

Zergatik aukeratu zenuen Pasi3n Vegaren abesti hori?

Abesti horregaz identifikatuta sentitzen naiz, neurri batean. Tratu txar fisikoa ez ezik, gaur egun tratu txar psikologikoa ere sufritzen dugu askotan. Nik neuk ere sufritu izan dut, eta abesti horrek eragin handia du nigan. Modu berean transmititu gura izan dut nigan izandako eragina. Euskaraz egin dut bertsioa, euskara bultzatu gura nuelako eta euskaraz abestuz gehiago transmititzen dudalako. Beti abesten dut euskaraz.

Momentu txarretan aurrera egiten lagundu dizu musikak?

Bai. Horrelako egoeren aurrean, guztiaren errudun jotzen duzu zeure burua... nahikoa da esan arte. Musikak eragina izan zuen erabaki hori hartzerako orduan. Momentu txarretan musikan murgildu naiz beti; musika irtenbidea izan dut.

Guztira, 26 abesti aurkeztu dituzte lehiaketara eta horietako 10 heldu ziren finalera. Nolako maila ikusi duzu?

Oso altua. Kontzertua gozamina izan zen; abesti guztiek izan dute bere berezitasuna, eta itzelezko ahotsak entzun ziren. Oso polita izan zen.

Zelako esperientzia izan zenuen Bagoaz programan?

Polita eta oso aberasgarria. Segurtasuna irabazi dut neure buruaren-

gan. Orain, musikaz, abesten ditudan abestiekin gozatzea lortu dut. Geroztik, ate batzuk zabaldu zaizkit, gainera. Nik sortutako abestiak kaleratzea gura nuke, eta asmo hori daukat.

Aurrerapauso handia litzateke nire abestiak kaleratzea, biluztea bezalakoada eta niretzat. Kostatu egiten den zerbait da hori.

Goazen telesailerako castinga ere egin berri duzu...

Hala da! Ikusteko dago zer irtengo den horretatik. Behar bereziak dituzten pertsonekin egiten dut lan eta oso pozik nago! Erizain ikasketak egitea ere pentsatu dut, baina arte eszenikoen munduak betidanik erakarri nau. Zerikusirik ez duten arren, mundu biak gustatzen zaizkit eta bidegurutze batean nago orain. Arte eszenikoen munduan asko gara eta beldur apur bat ere ematen dit. Momentuz, zaletasuna dut eta pozik nago, baina ikusiko dugu nola doan dena.



Lau hortza

Amaia Ugalde Begoña
Kazetaria



Arnasa

Lagun bati esan diot ez nekiela Anboton zertaz idatzi; Martxoaren 8ko grebaz gus-tura idatziko nukeela, baina tarteka gaia handi geratzen zaidala uste dudala, eta ez da-kidala orain arte esan ez den zerbait esateko gai naizen.

Aholkatu dit nire bizipe-nen inguruan idazteko, edo Elorrion dagoen zoramenaz; ea ikusi dudanez eguen hone-tarako, adibidez, sei ekitaldi desberdin egon direla anto-latuta.

Esan diot desherritzen na-bilela ni, gero eta gutxiago egoten naizela Elorrion; Mar-txoaren 8an ere nire bigarren herri bihurtzen ari den he-rrian izan nintzela, bertako emakumeekin.

Egia esanda, bai nire lagu-nak eta bai nik, ez dugu den-borarik izan eguenean anto-latuta zeuden ekitaldietako batera ere joateko. Bateko lana, besteko konpromisoa, nahiko topera gabiltza beti. Mundua konpontzeko zerbe-zatxo bat elkarri prometitua bai, baina gura baino gutxia-gotan hartzen dugu tarte bat lasai egoteko.

Hasi zen urtea, eta badoaki-gu, ia igarri barik, guztiz uda-berritutako negua. Dirua gu-re denborarekin ordaintzen dugu, eta asteburuaren zain, oporren zain, egoten gara maiz, produktibitatearen zu-rrunbilotik arnasa hartzeko unea noiz helduko. Emaku-me askok joan den barikuan eduki genuen arnasa ganoraz hartu, elkarrekin berba egin eta indarberritzeko aukera. Horrelako ariketak gehiago-tan egin, eta eman diezaio-gun garrantzia benetan dau-kanari; jar ditzagun bizitzak erdigunean, oparitu dagie-gun denbora gure ingurukoei eta geure buruari.

2019KO INAUTERIE TAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Aukeratu ezazu ANBOToren argazki lehiaketako irudirik onena.

Eman zure botoa domekara arte: anboto.org

Webgunean botorik gehien duen argazkiaren egileak
HOTEL-TALASOTERAPIA ZELAI ZUMAIAN
ESPERIENTZIA ZORAGARRI BAT irabaziko du

Lehiaketaren oinarriak www.anboto.org webgunean

